

zeruko ARGIA



IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

Elgoibarko herria Pedro Migel Urruzunoren

omenez bere heriotzaren 50 garren urtebetetzean (1844-1923)

Gure lan eta burrukak, gure egungo kondaira eta bideak, hitz batetan, gure izateak ez du geldiunerik, ez pausaldirik. Dena da abiadura, dena aurreratze; eta guztiok gara euskaldun, guztiok geure herriaren etxegintza honetan nola-halako peol eta langile.

Hori aitortzen digute bizi ditugun egun, aste eta urteek. Esandako hau batipat azkenaldi honetan han-hemenka loratzen diren kultura-aste, omenaldi, jaialdi, hitzaldi eta abarrek garbi baina garbiago erakusten digute. Badirudi euskaldunok halako batez gure kulturaren indartu beharraz ohartu garela, gure kulturaren funtzioaz jabetu garela; eta desio hau ez da baztertu edo guttiestekoa noski.

Egia, aspaldian geure kulturaren hildotik jo nahi dugu euskaldunok, geure kulturaren bidetan ibili, gure izateaz jabetu. Euskal interrogante asko dugu buruan, geure buru txikian, eta beharrezko, nahi eta nahi ezko zaigu hauer erantzun bat ematea.

Kultura alorri gagozkiolarik ez da aspaldion gaur hainbat mugimendu ikusi. Hemen ez bada hor, hor ez bada han, nunnahi da zer ikusi edo entzunik, zer esan edo aztertutik, zer ikasi edo irakatsirik.

Gogoan ditugu oraindik Iruñeko topaketak, Urolako Biltzarrak, Baiona, Bergara eta Arrasateko kultura-asteak tab. Hitzaldi eta mahai-inguru, abeslarien jaialdi eta antzerki, ipuin sariketa, bertsolari saio...; horra hor euskal txoko, bailara eta herrialdeetatik gure kultura xuxpertzera datozen sorkari eta ekintza aipagarriak. Hala ere ez dut uste gure herriak duen bizi eta dinamika osoaren ispilu eta agertzaila direnik. Behar bada agiriko espresio dirateke, espresio jator eta egiazko bestalde, baina beste mila alderdi ditu gure bizitzak hemendik at gelditzen direnak; egunerokotasun apalean gelditzen diren beste mila alderdi: etxea, lana, lantokia, ardoa, kuadrilla, deportea, jolasa, mendia, jendea, dirua...

Dena den, Elgoibarko herritik dator gaurko notizia eta albistea. Joan den abenduko omenaldi eta kultura astei jarraituz, Urruzuno euskal idazle izan zenaren omenez ari zaigu Elgoibar bere kultura-hamarraldia gertutzen. Hain zuzen ere aurten ospatzen bait da P.M. Urruzunoren heriotzaren 50garren urtebetetzea. Hori delata gartsuki ekin diote elgoibartarrek lanari beren herritarra omendu nahiz eta eskura zaigun programa mamitsuaren berotasunak eraginik, jai antolatzaileengana zuzendu gara zerbait gehiago eta batez ere argiagotzeko jakin nahiz. Han aurkitu ditugu gure lagunak «Ongarri» elkarte batega, beste elkarteetako gazte batzuekin batera eta denon artean galdera-erantzun hau jaso ahal izan ditugu.

—Omenaldi baten barruan mugituko zarete. Jakintza haro hau P.M. Urruzunoren omenez eta inguruan burutu duzue. Dударik gabe, ezaguna dateke Urruzuno zuen artean baina zoritxarrez, agian, ez hainbat irakurleen artean. Ager ditzaguzue Urruzuno. Nor zen P. M. Urruzuno?

—Hitz gutxitan erantzungo dizut. Elgoibarren jaiotzean 1844garren urtean eta hementxe hil 1923-an. Apaiz ikasketak egin ondoren Lesakan eta Oñan apaiz bezala egona dugu. Ondoren, Mendara haurra etorri zen, lehenik bertako parroko eta gero Agustinetako kapellau bezala, eta hemen hil zen lehen esan bezala, duela 50 urte. Apaiz ez ezik, euskal idazle ere bada Urruzuno. Batez ere bere ipuinetatik dugu ezaguna. Hamai-ka ipuin idatzitako idazle dugu Urruzuno. Jakin dugunez astein bi ipuin burutzen zituen, gero euskal aldizkarietan atera zirenak. Hori delata ipuin sorta handia utzi digu Urruzunok. Lau liburukitan bildu ditu Auspoak bere lanik aipagarrienak, baina oraindik bada beste liburu mardul bat argitaratzeko lanik aski, eta hain zuzen ere asmo horietan dabil Auspoa editoriala. Beraz, apaiz eta ipuin-idazle duzu bereziki P. M. Urruzuno.

—Zer esango zeniguke apaiz eta idazle zen aldetik? Izango dira, noski, hemen, Elgoibarren, bera ezagutu zutenak eta batez ere bere lanak irakurri dituztenak.

—Bai, halaxe da. Badira gure artean Urruzuno ezagutu dutenak eta hauer ere hurbildu gatzazkie bera hobeto ezagutu nahiz. Batez ere Mendaroko Agustinetako mo-jatxoak dira hari buruz gehien ean dezaketanak, beren artean izan baitzuten kapellau bezala. Hauer diotenez apaiz on bat zen Urruzuno, apala eta jakintsua. Hamai-ka errosario, bederatzuurren eta elizkizun gozo eta ederren zuzendaria. Harenak bai noski errosarioak...; eta gutxi gehiago adineko jende nagusi gehienak ezagutu zuen Urruzuno. Idazle bezala berriz, ipuin idazlea esan dut lehen. Oso herrikoia bere idazlanetan; herri hzkuntza jatorra berak darabilkiena. Ez zen purista edo berri-zalea; "nik herri xehearrentzat idazten dut" zion berak. Bere garaian irri asko eragin zuten bere ipuin xelebreek. Zirikatzaile eta umore oneko agertzen da beti lanetan (ez dakit pundu honetaz ijitoak zer esango luketen).

—Litekeena da ondorengo galderak hau desegoki gertatzea baina zeurontzat, antolatzaileontzat zer da Urruzuno antolatatu dituzuen jai hauen barruan, aitzakia bat agian?

—Beno, ez da haserretzeko adina baina aipatu duzun hitz horri ez deritaz egokiena. Urruzuno motibu eta arrazoien bat bezala hartu dugu egin nahi dugun jakintza haro honetarako. Bera gabe ere egin zitekean gauza dela uste dut, baina zer arrazoien egokiagorik euskal kultura haro bat eratzeke eta



Pedro Migel Urruzuno

honen barruan bere garaian kultura horren laguntzaile eta indartzale jator izan zen gizona omentzeko?

—Erabat zurekin natorrela aitortu behar. Nola burutu duzue jaialdia?

—Jaialdiaren eraketa Elgoibarko «Ongarri» elkarte kulturalaren inguruan burutu da gehienbat, eta honekin batera herriko beste elkarteetako jendearekin. Esango dizut, jende gaztea izan dela gehienbat omenaldi hau antolatzen ibili dena. Omenaldia berriz San Antontxo jaietan egitea ikusi genuen egokiena; horregatik egingo da urtarrilaren 17tik 28ra.

NON ZER	
● EUSKALDUN FEDEDUN Larresoro	3 garrean
● SUIZA: LAU HIZKUNTZATAN MIN-TZO DEN NAZIOA Garate	3 garrean
● EUROPA, ZER ETA NORA? Elustondo-Iza	5 garrean
● UROLA IBARREKO BILTZARRAK Anatsan	6-7 garretan
● ALDAKETALDIAK DAKARTZATEN Arostegi	11 garrean

tsolari saie bat. Hauetaz gainera beste bi ekintza daude Urruzunori zuzenago dagozkionak. Bata "Iru-Ziri" antzerki irigarria Urruzunoren ipuinekin Agustin Zubikarai jaunak taxutu eta Elgoibarko talde ezagun eta jator batek antzes-tuko duena. Eta bestea, Urruzuno euskaltzain izan zenez, Euskaltzaindika Elgoibarren ospatuko duen hileroko Batzar Nagusia.

—Ikusten dugunez asmo eder eta handiak dira zuenak eta ez txikiagoak hori dena antolatzen hartu dituzuen lanak. Beste galdera bat egin nahi nizueke. Zer da Elgoibarentzat honelako omenaldi bat?

—Elgoibar berez da aberatsa bere manifestazio guztietan; dinamika handiko herritaz daukate atzeritarrek. Ez dugu abaztu behar industrializatutako herri bat dugula eta industrial izate honen eragina ageria dela elgoibartarren zenbait ekintzatan. Omenaldi honek herri osoaren agerpen bizi izan nahi luke, gure kulturaren sakontze bat. Beti lantzen dira urtean zehar jakintza gaiak ematen diren hitzaldi eta saioretan baina aspaldian ez guren hain saiaera eta jardunaldi serioerik ukan.

—Eta azkenik galdera bat: nolakoa izango dela uste duzue herriaren erantzuna? Nola erantzungo diete elgoibartarrek P. M. Urruzunoren omenez eratu dituzuen jai hauer?

—Erantzuna herri osoarena izango da. Omenaldi hau elgoibartar guztiok egiten dugu eta denok dugu esku omenaldi honetan. Egingo diren jaialdiak denon onari begira eginik daude, denontzat zabaldurik daude: gazte eta zaharrentzat, kaletar eta baserritarrentzat, nekazari eta langileentzat. Eta hori horrela izanik ezin hobea izango dela uste dugu herriaren erantzuna eta handikiro ospatuko dugula elgoibartarrok gure herriak eman duen idazle eta gizon handi honen heriotzaren 50garren urtebetetzea.

Hauetxek izan dira omenaldi honen antolatzaileek gure galderei eman dizkietan erantzunak. Horra beraz Elgoibar Urruzunoren omenez. Gure lana beterrik genuen eta etxera bidean jarri gara.

Baina han, han utzi dugu Elgoibar omenaldi bikain honen ametsa aurrez miresten zeren eta gaur amets dena bihar egia gertatuko bait da, eta gaur kapulu dena bihar lore eder bihurtuko elgoibartarren lorategian, Pedro Migel Urruzunoren omenezko jai honetan.

BERTSO BERRIAK MANAGUA

— 1 —
 Nik ez dakit zer jende klase dan, urruti bai dago ua. Baliazateke izatea're gu baño obeagua. Guregandikan aparte dago ez dakit zenbat legua, Aztuta ezin utzi liteke orregatik Managua.

— 2 —
 Barrenetikan begiratuta beltza an gertatu dana, Era berean arkitutzea ez al da gero azkena? Beste guztiak galdu ditunak oraindik itxaropena, nundik andikan bai ote zaion elduko laguntasuna.

— 3 —
 Ezin genzake batek'e utzi begitzeke barrendikan;

ez uste izan gertatu dana txantxetakoa danikan; ezertarako laguntza egiten ez artzearren lanikan; une baten'e ez gaude gero bakar bat libre ortikan.

— 4 —
 Gizona sortu zuanetikan Jaunak ala jarri zun-da; bakoitzak bere eginkizuna bizitzan beti izan da. Ez batzuk lertzen lanean eta beste batzuek etzanda. Ez gaude libre, asko duanak eman dezala», esanda.

— 5 —
 Gure bizitzan ainbeste gezur, ez dakit zenbat engaño. Gizonak ez du naikoa izan orrenbestez oraindaño. Norañokoak ditun almenak, eginkizunak araño. Ez du zer esan, asko duanak geio lezakela baño.

— 6 —
 Gu, zigorkadak lenago ere iñoiz ba gera artuak. Olako batek otxantzen ditu arrokerizko tratuak. On egitera une guztitan bagaudeare beartuak, egun auetan gure biotzak izan leizke loratuak.

Jose Manuel Arriola

NERE BORDATXOTIK

Berrotegitamar urte dira Pedro Migel Urruzuno jauna il zala.

Aren jaioterri Elgoibar'en il beltzaren amazapitik asi ta ogeitazortzira, berebiziko jaiak ospatuko dira.

Euskal idazle errikoirik iñor izan bada, bat ori Pedro Migel Urruzuno.

Parre algara gozoa pranko egin genduen gazte denboran aren lanak irakurrita.

Urruzuno'ren zerbait irakur-tzen asten bazera, bukatu arte etzera geldituko.

Egundo etzaitu aspertuko ta nazkatuko. Ipui bat irakurtez amaitutakoan, urrengoaren bila joango zera amorratzen.

—oOo—

Sebero Altube euskaltzain (akademiko) zanak, euskal idaz-leen ispillu bezela izendatzen zuen.

Berdin "Kirikiño" ere. Zergatik?

Gure erria iñork ez bezela ezagutzen zuten idazleak zira-lako; ametssetako munduan etze-biltzalako, garai artako ta gaur-ko idazle asko gabiltzan bezela.

Erriak jarraitu egiten zieten; aien lanak noiz eta nun ikusi-ko egoten zan.

Gure egunetan agertzen di-ran lan asko norentzat idatzia- (eskribitunak) daude?

Zenbatak irakurtzen dituzte? Ta... zenbatak ulertu edo kon-prenditu?

Artu degun bide au al da ain larri dagon izkuntza salba-tzeko bidea?

Etzegok toki txarrean!

—oOo—

Aita Zabala jesuitak esaten zigun aurreko egun batean:

"Urruzuno'ren denborako ain-bat goi-maillako idazle, ainbat gizon argi, ainbat jakintsu, ai-tatu ere ez tira egiten gaur.

Eta mojatxoan kobentuko ka-pillau apala, ezerez ustekoa, or dago bizirik erriaren oroime-nean".

Orain berrotegitamar urte ere oso buru gutxiarekin jokatu bai-ziran ainbat eta ainbat euskal idazle.

Garbizalekeriak zuen indar; puritanismoak, alegia.

Kontu gero gure izkuntza er-del itz batekin kutsutu!

Itz berriak sortu parrastaka, barkilleroak barkilloak egiten dituen bezela.

Griegoa baño zaillagoko eus-kerak bat sortu; erriak tutik konprenditzen etzuen euskera.

Alako porruak atera zituzten!

Kapillau apala danen gogoan. Beste aiek izan ziranik ere iñor oroitzen ez.

—oOo—

Arrazoi zuen "Lizardi" aundi-ak "izkuntza larreakoa" edo-zertarako gai zan izkuntza egi-nik ikusi nai izatearekin.

Auxe ber-bera nai degu egi-tazko eukaltzale guztiok.

Arrazoi du gure izkuntzalari jakintsuenak, "Xenpelar'en" euskerak beretzat etzuela balio dionean.

"Xenpelar'en" euskerak, or-dea, millaka ta millaka euskal-dumentzat balio izan zuen, eta ala balio du oraindik ere.

Gure jakintsuen euskerak zen-batentzat balio du?

Erria jakintsu oien euskera ausnartzeko moduan balego, ge-zur ikaragarria litzake euskera eriotzean dagola esatea.

Batekoz bestera; arrigarritzko indarrean egongo litzake.

Eztago, ordea.

Larri, ezinean, negargarri da-go. Au da egi bakarra, aitortu nai badegu ta ezpadegu.

—oOo—

Erri zeak, erri apalak eutsi dio orainarte bizirik.

Orain, gabetik goizera, lurrik ikutu gabe, lañoetara igo nai degu.

Erriari ostiko eman, utik!, esan, eta dozenerdi bat "inte-lektualek" ulertuko duten eus-kerak izenekoa idazteari ekin di-gu. Ortan ari gera buru-belarri.

Gaurko erri zeak erdera as-koz errezoa konprenditzen du euskera klase ori baño.

Ta erderara dijoo abiada bi-zian.

Geuk degu erru guztia: geu gera pekatari.

Urruzuno, "Kirikiño", Txomin Agirre, ta beste jaun txalogarri batzuren bidetik jo bagendu, besterik izango zan.

Poliki-poliki "izkuntza larre-koa" goietara jasoaz joango gi-ñan. Poliki-poliki, ta ez gabetik goizera.

Jakintza egoz apainduko gen-duen denboraren poderioz, erri-ari esku emanez ibiliz.

Lengo neskazarrarena gerta-tuko zaigu azkenean:

"Zaldizkoa nai, ta oiñezkorik ere azaldu ez".

—oOo—

Pasañtik artu degun karta batean au adierazten zaigu:

"Lengo egun batez berebiziko eztabaida izan genduen lagun

arteau. Bakoitza sutsu zegoen be-rean.

Euskaldun artean gerta oi dan bezela, pakerik izango bazan apustua egin bear.

Bosteuna peza beta zituzten alde bakoitzetik dixputalariak.

Zuregandik jakin nai gendu-kena auxe da: "Txirrita" bert-solari famatua zein urtetan eta zein egunetan il zan".

Erantzuna: "Txirrita'ren" eriotza, 1936'-garren urteko garagarrilla'ren irugarren egunean izan zan.

Arratsaldeko lauretan, ala bearrez. Asteazkena zan gafi-er-a.

Dakiguna esan dizuetegu, ta bedi pakea ta anaitasuna zuen artean.

—oOo—

Mendizabal lenengoak joko osoa Ostolaza'ri entregatzea era-baki du plazaratu gabe.

Dakizutenez, bi joko zituzten egiñak Ostolaza ta Mendizabal lenengoak.

Lenengoa aixa irabazi zuen Azpeiti'n Ostolaza'k.

Bederatzi arruako arri zilind-roekin neurtu ziran.

Bigarren neurketarako amar arruako zilindroak zeuzkaten izendatuak.

Atzera egin du Mendizabal'ek, eta jokatu gabe irabazi ditu ogei milla duro Ostolaza'k.

—oOo—

Kontrario gabe gelditu dala-rik, arri orrekin marka bat jar-ri asmotan da Ostolaza, ba-karririk plazaratuta.

Garaiz esango zaizute zein tokitan, zein egunetan eta ze ordutan.

Ostolaza'k erabiliko duen arria lengo xixtima zarreakoa izango da. Aurreko arrijasotzaille zar-rak erabiltzen zituzten arrien molde berekoa, ta ez oraingo berrietakoa.

Pixu berdiñekoak izanarren, arrigarritzko aldea baitago arri zarretatik berrietara.



Molde zarreako arriekin (amar arruakoarekin), markarik aundi-na Ostolaza onetxek berak dauka, 170 jasoaldirekin.

Amarna minutuko iru tandetan egindako lanak dira.

Ba-du Ostolaza'k lengo bere marka ontzeko itzaropena.

Al balitz, baita Mendizabal'-ena ere.

Baiña oso zail izango zaiola pentsatzen du; geitxo izango ote dan.

Apartekoa da Ostolaza arri klase anekin, eta eginda utziko duen lana ere ala izango dala pentsatzen degu itxuan: apartekoa!

Baxarri

ERAMAN - EKARRI'rola
 AGENCIA
 Transportes A L E
 EUSKAL IRRATSAIOAK
 ERRI GUTIRAKO
 Urruzuno'rik: 424322 - 427725
 Urruzuno, 5 - DONOSTIA

JOSE ZINKUNEGI'REN
 OPTICA BERRIA DONOSTIAN
 URTIETAN LAN OIETAN OITUA
 BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
 Hernani, 4 DONOSTIA

TRANSPORTES **azkar**
 ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
 Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.
 Donostia'rik egunero:
 Iruña, Bilbao, Geztetz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Al-cante, Murcia, Cartagena, Granada, Almeria, Santasdoz, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.
 Astean iru aldiz:
 Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo're.
 Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA
 Telefonoak: 450313 eta 459723
 Aptdo. 1381

ORMAZABAL - DAR DUNIXI
 ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK
 URALITA ORDEZKARIA
 TOLOSA
 Urruzuno'rik: UURRUXUA
 Etxekoa 65 19 60 Urruzuno'rik:
 Landolokoa 65 19 33 Landolokoa 67 17 84
 ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7gn

bazkari onaren zanpagarria
 eta ixarraren estalgarria

LA CASA
 DEL CAFE
 Juan Iriondo
 San Marzial, 19 - Urruz. 413801
 Donostia

BEREALDIA

Europa, Rusiaren eta Ipar Amerikaren menpe

Gaur bertan irakurri dut. Orre-lakorik orain dela bi urte entzun bagendu arriturik geldituko ginen. Alemaniako bi estadek, aitzinarat edo aurrerantz, diplomazi arremnak embajadore bidez izango dituzte. Gazteontzat beste munduko gauza denik ez dirudi baina "gudu otza" bizi izan dutenentzat Alemaniako estadien elkar aitorketa au ez da txantxetako gauza, orregatik.

Rusia eta Ipar Amerikaren arteko arremnak, Europa bitarteko zela, Alemaniako arazoari zeuden itsatsirik. Cubako eta Berlinoko gertaeren ondorit indar eta bortxaz arazoa erabakitzerik ez zegoela jendea oharitu zen. Alemania ez zen bat izango indar militarren bidez. Konponketarik ez Alemania batu baino lehen zituenek, amets etan bizi zirela ere jabetu ziren. Europako buruzagiek "barealdia" nahi zuten nahiz eta Alemania ez batu. Estadien arteko arremnak

Europa, Ipar Amerika eta Rusiaren artekoak alegia, baretzen ziren neurrian Alemaniaren soluzioa elduko zela uste zuten asko zen eta asko da.

Barealdi onen beharre onartu zenean Alemaniako arazoari irten bide bat bilatzeko iru jokabide izan ziren: Sartaldeko Alemaniarena bat, De Gaullena bestea eta Ipar Amerikarena, azkenik.

Sartaldeko Alemanak beste alemanekin arremnan txiki batzuk izan zituzten. Arremnan horiek aurrera eramane zituena Schroeder demokrata izan zen. Ezin bestean, Rusiarekin ere arremneman asi ziren, arazoaren karkoa Rusia bai zen. Alaz ere, arremnan auek ez zuten ondoren izan. Rusiako eta Sartaldeko Alemaniaren buruzagiak postura gogor batean zeuden: Ordun, sartaldeko beste estadien buruzagiekin arremneman asi ziren, batipat Rumiarekin. Beste estadi sozialistekin arremnan onak

izanik, Rusia eta Sartaldeko Alemaniaren buruzagiek posturaz aldatuko zirela uste zuten Sartaldeko alemanak.

Bigarren bidea, De Gaullena izan zen. Sartaldeko estadien abertzaletasunean oinarritzen zen De Gaullena. Estadu orin abertzaletasuna ideologizko interesen gain gailenduko zela uste zuen De Gaullen. Sartaldeko estadien posturaren aurka, Txinaren postura batipat gogoan izanik, borroka egitea Rusiari ez zitzaioela egoki ere pentsatzen zuen. Rusiak bide bat artu beharra zenkan, bere menpekoei askatasun gehiago emango zien bidea, alegia. Bide ori arteko Ipar Amerikak lehenik Europatik alde egin beharra zuen. Eta gauzak baretzen zihoazen bezala ori irixtea ez zen gauza zaila izango. Bide batez, Sartaldeko Europako estadien artean arremnan ertsiagoak sortuko ziren eta hidenabar munduan ekilibrio egokiago bat sortu ere. Egoera berri orretan Alemaniaren arazoa konpontzea askoz errazagoa izango zen. Rusiak De Gaullen ideiak ez zituen gaitzesten Ipar Amerikaren itzala ahulerazten zuelako, ain zuen.

Ipar Amerikak beste bide bat zuen ordea pentsaturik. Brzezinski, Johnson lehendakariaren kontseilariak eta orain Kissingerrek besterik zuten pentsatzen. Alemaniaren batasun gogo ez zegoen bazterrean uzterik baina asmo zahalago baten barrutian kakotu behar zen, bi "andien" arteko eta atlantiko arremneman, alegia. Bonnek Mosku eta Pankowekin buruz buru itzegitea ez zen egokia. De Gaullen ez zuen indarririk, bestalde, bere ideiak aurrera ateratzeko. Askoz obe zen, beraz, Sartaldeko estadi sozialistek "Marshall" plan berri bat eskeintzea. Plan berri orren bidez lotura berriak zitezkeen, ideologiazko arazoak baztertuko zituzten lotura berriak, alegia. Giro orretan Alemaniaren arazoa erraz garaitzeko gauza izango zen.

Iru postura desberdin auek arazo gogor eta latz batzuk adierazten zituzten. Arazo oriek gaindu gabe ez zegoen irten biderik.

BAT: Beste estadi sozialistekin izan zitezkeen arremnan izan al zitezkeen Sartaldeko Alemaniarekin? Beste estadi sozialistek nolabaiteko aberri nortasuna bazuten baina Sartaldeko Alemaniak ez, bortxaz sortua izan zen ezkerre. Beste estadi sozialisten interesak eta Alemaniarenak ez ziren berdinak. Rusiak ordea ez zuen berdin pentsatzen. 1967 garren urteaz gero bere menpeko guztiei postura berdina arerazi zien Sartaldeko Alemaniaren bideari itsatsiaz eta bere kabuz ibilli nahi zutenaren egoak moztuz. Sartaldeko Alemania, beraz, ez zen bakarrik, besteengandik bereizirik gelditu, Sartaldeko Europa eta Ipar Amerikak nahi zuten bezala. Rusiak ezartzen zuen beraz bere gogo. Alemaniako bi estadien arteko mugek itzungo zuten. Eta arazoaren konponketa egia ori inoiz ahaztu gabe egin beharko zen.

BI: Europako arazoak konpontzeko, barealdiari irau eratzeko norengana zuzendu behar zen lehenengo, Rusiarengana ala beste Sartaldeko estadi sozialistengana? Sartaldeko estadiuek bidetxigor askori eldu diote. Ez dira beti bide batetik ibili. Sartaldeko Alemaniaren Schröderen garaian Rusia alderdi batera utzi zen. Orain Brandten garaian Rusiarekin dituen arremnan estuenak. De Gaullen postura garbiagoa izan zen baina onak ere bere ezker-eskubiak izan zituen. Ipar Amerikak ere ez du bide bat izan zen. Aseran, batipat, Rusia ez beste estadiengana zuendu zen. Bide orretatik ezer ez zegoela ikusi zuenean, Rusiarengana ere jo zuen baina Alemania baztertuaz. Azkenik, denekin ekin dio, baina Rusiari berezitasun andia aitortuaz. Denok ikusten dugun gauza da. Rusia eta Ipar Amerikak arremnan estunak dituzte bien artean. Gaur eguneko barealdia Europar behintzat, bien esku dagoen gauza da. Sartaldean sakabanaketa bat sortzen ahalegintzea alferrik dela ikusi du Ipar Amerikak. Txekoslovakian ori garbi ikusi zen.

Gizonen gertuago ote?

Europatik hain urre eta hain urrun gaudenontzat ezin daiteke zeharretik ikusi ohi den pitxiaren aurrean sentitzen den neutralidadean jarraitzea Europako arazoaren aurrean. Europar egiten dena gure onerako ala txarrerako, ukatzeko ala baiezteko bait da, eta doan errekararen aurrean izan ohi dugun axolagabekeri bera agertzeko.

Sartaldeko Europari mugaturik eta bertan aintzindari agertzen diren Merkatu Elkartuaren Estadi atxikirik, hel dezaiozun hauetan egiten denari. Europa hau, atzoko Estadien menpean zegoen Europa hura baino gertuago ote dago gizonengandik?

1957-garango Erromako promesa mailaz maila betetzen doa. 1980-garren urterako Merkatu Elkartua osatzen duten Estadietako merkantziak ez dute eragozpiderik aurpiderik aurkituko batetik bestera pasatzeko; aduna trararik gabe Bederatzi hoi kanpotik datorren produktoren kompetentziarengandik babestua egongo dira bertaokoak. Itxuraz bederen, hara Bederatzen arteko salerosketa librearen eremua geroz eta indartsuago ezartzen.

Merkatu horren neurriaz jabetzeko ondo dator kontuan hartzea ez U.S.A.-k eta ez da ere U.R.S.S.-ek ez dutela bakoitzaren barrutietan hark hainbat biztanle edo aho. Beraz, ondo eraturik aurrerapenerako, baina nork zuzendutako aurrerapena edo ze eratako aurrerapena da Europaroko ezarri nahi dena?

Europaren ekonomi indartze bat bilatu da nagusiki. Amerikaren indar industrialari buru egiteko, enpresa nagusiak indartzeko bideak hartu dira bereiziki. Baina Citroen eta Fiat, Michelin eta Pirelli edo Estadi lantegien arteko elkarteak ematen direnean noren zerbitzuan jartzen ote da elkarte horrek dakarren progresu bidea? Ford jaunak Ameriketarako ziona ez ote dute berbera esaten gaurko Europaren ekonomi-maila daramatenek?

Hauen humanismoa errentabilitatean oinarritzen da eta konsumoa bera beren errentabilitate horren araberan egokitzen da. Zenbait bazterretako lantegi ahulen desgiteak, ondo deseginak behar bada dakarren ondorena ez da aintzakotzat hartzen. Hutsune hoi ez dira betetzen eta gizona handik honera erabiltzeko beldurrik ez da agertzen.

Zu eta ni bezalako gizonarentzat galgariak ote dira beti ekonomiarren hazikuntzarako dauden lege propioak? Ez ote du ekonomiarren hazikuntza berak zenbait aukerabide? Nagusi sailak harturiko erabakiek ez ote dira maiz agertu nahi ekonomiarren bezala?

Nagusi sail honentzat onuragari gertatu da merkatuaren zabalaketa hori. Hauen eraginak behartu dute eta baita ere bultzatu gaur Merkatu Elkartua bezala ezagutzen duguna. Estadiak Europako lantegi haundien nagusi sailari mugak jarzke? Borondate onenarekin (?) egin-

dako ekonomi alderdiko plangintzak non gelditzen dira enpresa nagusien jokabide berezien aurka erazten direnean? Beren baserria eta beren lurraldea utzi beharrean aurkitzen direnek jasotzen duten lantuzko herritarren dirutik jaso ohi dute eta hau dena nagusien «programa» ekonomikoetara lotu ditzuten. Europaren gaurko egoera sozialak ez du enpresen jokabidea neurtzeko hainbat indarririk. Gehiegikeriak mugatzeko behar bada, zertxobait.

Hala ere. Merkatu Elkartua errealitate bat da eta nagusi sailatik at dauden beste taldeak Europako arazoa beren arazoa bezala hartzen ez duten bitartean, beste taldearen menpean dagoen Europar jarrai beharko dute luzarok. Misifikatutako Europaren diru-batasuna, merkatu elkartua, laboratoriorik bikainak eta abar langileriarentzat eta inguruko taldeentzat dibisio bide baizik ez dira gertatuko.

Orain ez da aski auteskudeen bidez Estadiaren erakundeaz jabetzea. Estadi hauek mil ekonomiko bidez gainduak izan bait dira. Estadiaren agintez jabetu behar bada ere, aintzakotzat hartu behar dira ere lantegi, hauzo ta bestelako egituren aginte berrietak eta horretarako presta behar diren borrokak.

Europa horretan non gelditzen ari dira Herri, lurralde eta abarren protesta lehunak? Estadiaren aurrean soilki ematen direnean, oso ajola gutxioko zaie luzaroko ekonomiarren egitura menperatzaileak egokitzen ari direnei.

Europako Alderdi jokatibidea beren arteko eztabaidetara eta Estadi mailara mugaturik daudela dirudi. Auteskudekerian eroririk. Sindikatoak Europa mailako enpresen araberan erazten hasiak badira ere, badirudi egitura hoi baiezteko eran dela soilki eraberritze hori.

Estaduari buruzko borroka ahitu ez bada ere, Eurapako arazo berriei buru egiteko garaia heldu da. Izan ere, zertarako eztabaidatu Fratziako gobernuaren programa ekonomikoa, enpresa nagusien jokabidea hortik at hartzen dela ikusten bada. Zertarako balio du lantegi berri batean edo eraberritutako beste batean idarra agertzea sindikatoen aldetik, baldin eta hauek berak zenbait gizonen bere lurraldea utzierazi dion zergatiaz kezkatzen ez badira. Badute Erakunde hauek talde ekonomikoaren jokabidea sendotzeko arriskua.

Hala ere, Herriak eta langileriak erakunde hoi beharra dute, baina erakunde hoi herritarra lagundu nahi badute, nagusien estratejian erori gabe bera desegiteko bidea hartu behar dute. Erakunde hoi ondo bereiztu dezatela ekonomiarren legeak eta nagusien aukerak.

Herrien eta gizonen zorientasunak berezko mugak baditu ere mugaketa hori ez dedila gerta beste Herri edo talde baten nagusikeriagatik. Egin dezagun Europa Herrien eta gizonen gertuago dagoen bizi inguru.

D. IZA

JOSTUNDEGIA MODISTEGIA

URBIETA, 66 DONOSTIA

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, eta nora jo jakin bear du baserriar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRETERI

ATEATE OPARIAK

JATONTZI TA MAI - TRESNAK

Victor Pradera, 2 (Esquina Zubieta) DONOSTI

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARRO, ARDO GAIN-GAINEKOAK ETA EDARI GUZTITATIK

Blas de Lezo Kalea, 6 Urrutizidua: 41 20 05 DONOSTIA

Baserriaren alde

EUSKAL ETA ERDAL

Caja de Ahorros

Municipal de San Sebastián

Banen baneko azikay Ongarri ta abonoak Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira Joan etorriak

aristegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK, PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR, GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIK.

ERAKUSTOKIA: FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11450 DONOSTIA

Ipar Amerika geldirik egon zen. Rusiak ez du bererik utziko.

Rusia munduko arazoetan indartsu azaltzen da. Europar dagoen barealdi onek sartaldearentzat ongaria izango zela uste zen. Askatasun gehiago sortuko zela uste zen. Rusiak beste bide bat darma. Bere barrutian gogortasunaz jokatu du eta kanpora irriparez azalduko. Blokeen arteko barealdia eta bloke baten barrutiko gogortasuna ederki uztartzen dira gaurko egunean. Hungriako gertaeretan ez zegoen orrelakorik pen-

tsatzerik. Hungarian gertatu zenak, mundua koloka jarri zuen. Txekoslovakio gertaerak Rusia eta Ipar Amerikaren arteko barealdiari ez dio ezertan ere eragin.

Eta egoera onetan zer egiten du Sartaldeko Europaren Elkarteak? Ba al du bere biderik? Zer egin dezake? Nortasunik ba al du? Ipar Amerikaren morroi ez al da? Galdera asko sortzen da. Denci ez bada batzuri behintzat beste lantuzko batetan erantzuten ahaleginduko naiz.

JUAN ELUSTONDO

Urola Ibarreko

Abenduaren zazpian hasi eta hamazazpian bukatu ziren, Azpeitian antolaturiko Urola Ibarreko Biltzarrak. Hamaika eguneko ihardunaldi hartan, egun bakoitzeko gertakizunen berri eman izan genduen irrati eta egunkarien bidez. Gaurko lan honen bidez, Biltzar guztien laburpen bat egin nahi genduke. Aldez aurrez zenbait salbuespen egitera beharturik gaude, luzeegi izan ez dedin. Adi bidez Biltzarren baitan egin ziren zenbait gauza, Argia dantzari taldea, Aralar antzerkia, bertsolariak, filme e.b. Euskal Herriko toki gehienetan barrena ibilirik direlako, eta beraien berri emanaz gurea baino luma iaioagoak mintzatu direlako; guk ez ditugu aipatuko.

ANTXIETA ETXEA

Z. Argian esaten zen bezala (ikus 509 zenbakia) Biltzarren antolakizun nagusirako, Antxieta etxea aukeratu eta prestatu genduen. Antxieta etxeak bazuen erakarpenik franko egun haietan. Has gaitzen lehenik etxeari buruz mitzaten.

Denak harriturik gelditzen ziren Antxieta etxearen egitura ikusirik, toki egokiagorik ez zegoen aukeratzetik gisa hartako aurkezmenak egiteko. Etxea bera ikusteagatik bakarrik, beste ezer gabe, etortzea merezi zuela aitortzen zuten gehienek. Izan ere hala da. Antxieta etxea da gaur Gipuzkoa guztian etxerik berezietariko bat, arte agerketak egiteko.

Aurrezki Kutzak berri zuten, erabat desegitear etxe zaharra, eta orain arte itxirik egon da. Agian honelako etxe bat, edozer huxkeriatan alferrik galteaz ez da inolaz ere onartzekoa izango. Zeren zaurak hanka jasoaz pixa egiteko eta tebeoak irakurtzeko bada nahiko ganbara zulo. Halabaina, urte-urte erabat, hamar kate-kandauz itxirik edukitzea; marra iraganik beste muturrera pasatzea litzake. Non bila soluzinoa? Gure ustetan hementxe, Biltzar hauek eskaini dioten esperientzian. Antxieta etxearen patua batipat, eta beti ere kultur hildoari atxikirik gabiltzalarik, kalitatezko eginetan finkaturik egon behar du. Bereziki artzintza eta beronen inguruan sortzen diren gaiak burutzen. Gipuzkoako arte egoerari begiratzu gero, ez dugu goihelburu nagusiagorik ikusten Antxieta etxerik. Guk ate-sarraila herdoildua ligertu diogu, baita hormatako amalmak kendu ere. Orain Aurrezki Kutzako zuzendariak dute hitza.

HIRIGINTZA

Eibarko Txantxa zelai berritzeko, berri ahal bada, Eibarko udalak lehiaketa bat eratu zuten. Harako lehiaketa hartan parte hartu zuten hamar proiektu-proposamen aurkeztu ziren, Antxieta etxeko hirugarren gelan.

Eibarrerako egin zen lana bazen ere, ez zitzaigun gaizki etorri, gure herrietako urbanismo problemetaz esnatzeko. Izan ere, egungo egunean, hiri guztiek gehiago edo gutxiago jasaten duten problema berritza da urbanismoa. Gaurregun espekulazioz edo beste edozein azpikeriaz egiten diren itsuskeriak; ehundaka urtetako ondorioa dakarte. Honako kezka hauek guztiak bildu ziren, Eibarko Txantxa zelaiako proiektu buruz tajutu zen elkarrizketan.

Xabier Unzurrunzaga, Rafael Moneo eta Maite Zelaia osatu zuten mahaiburua. Ingurumarian, hogeita hiru arkitekto bildu zen, Euskal Herriko eskualde orotatik etorriak.

X. Unzurrunzagak, hitzaurre bat euskeraz egin zigan, eta ondotik, diapositiba batzuen bidez baliaturik, Eibarko "kaskoaren" problemak zuztar-zuztarretik arakatu zituen.

Maite Zelaiak, Eibarko udaletxearen asmoak azaldu zituen. Berandu bada ere, eibartarrek konpondu nahi bide dituzte, lehen eginikako okerrak!

Azkenik, lehiaketa hartan lehen saria irabazi zuten arkitektoa mintzatu zitzaigun. Hots, R. Moneo Muskariako nafar gaztea.

Moneoren tesi nagusia hitz bitan agertuko dugu. "Eibarko hiriaren situazioa eta estetika ikusirik, ez zegoen soluzio idealista bat proposatzetik. Haatik nire proiektua, gaurregun Eibarko herriari dardara gehiegirik egin gabe akoplatzeko modukoa da". Ondoren arkitektoen arteko eztabaida bat egin zen,



zenbait erreformista kutsua ematen zion, Moneoren proiektuari; honek berri bere iritzi nagusiari helduaz, beste astinaldi bat eman zion Txantxa-zelaiako infrastrukturari. Halako elkarrizketetan mutur askotatik irteerak alde-irizirik sortzen dira, eta guztion aberasgarri izaten dira.

Behar bada, Biltzarretan erabili ziren anitz gairen artean, hirigintzari ez zitzaion, eskatzen zuten hainbat toki eman ahal izan. Hirigintza, bera bakarrik aski gai da astebe batetan erabiltzeko. X. Unzurrunzagak bere taldearekin egin dituen azterketak, beste egun batetarako utzi genituen.

ARTE AGERKETA

Egitarauan agertzen zen bezala, artista sail bikainak irudiz eta margoz eginikako lanak agertu zituen. Tamalez, Rafael Balerdik azkena ekarri zituen bi kuadro haundi, laugarren egunean iritzi ziren, eta ordurako jende asko ibilirik zen exposizioa miatzen. Zenbait artista oso ezaguna zen, adibidez Txillida, Zumeta, Sistiaga, Balerdi e.b. Beste zenbait, berriak edo gutxi ezagunak. Azkenengo hauentzat batez ere, Antxieta exposizioa aterabide bat izan da, artegintzan sendotzeko abagune ezin egokiagoa.

Zenbait kritikoren iritzi, hobe izanen omen zen, lanak pittin bat urritu eta galbahe xehegotik pasatzea. Kalitatez gehiago irabaziko omen zukeen exposizioa.

Egia esanaz aitor behar da, oraingo arte agerpen honekin ez dela museo bat egin nahi izan. Kalitate arazoak badu bere astuntasuna; halaber eragozpenik ere izango du. Soil-soilik kalitatea gortzera bagoazkio, honek beste oztopo bat dakargu. Zer egin behar dute egungo zenbait artistak, herri-mailako agerpenetan ere ateak itxirik arkitzen badituzte? Artzintzan lerrin izugarriak eginaz bizi dira, gaurko artista gazte asko. Aldez edo moldez guztiek laguntzea izan da Biltzar hauen asmoa. Museo zaleak lasai bitez, kalitatez galdu dena promozioz irabazi delako.

Jendea eten gabe ibili da egun guztietan, aristen lana ikusten. Denak edo gehientsuenak, aho beteant mintzaten ziren. "Zer arraio esan nahi ote dute zirriborro horiek?"

Herri xeheak (Urolan bederen) ez du izan biderik arte abstraktoaren barrunbeak hausnartzeko. Guk gogoratzen garelarik, duela hamabosten bat urte egin zen Azkoitiko Intxausti jauregian, arte abstraktoaren agerketak bat. Ondotik, hainbat urtetan, ez da deus egin Urolako barrean. Halare jendea erruz joan zen, milaka pertsona sartu zen hamaila egun haietan. Dudarik gabe, ikusle bakoitzarentzat, "zirriborro" ulergaitz haiek, barne-erakarpenik aski sortu zuten. Bira eta bira, galde eta malde, zerbaiz garbirik atera nahirik kuadro eta irudi haietatik.

Egungo arte berria hein batez konprenigaitza bada ere, ez dela erabat arrotza esango genduke. Hezi-molde batzuen beharra nabari da. Agerketaok sarriagotan eta iraupen luzeagoa behar lukete, eta ingurumarian eskolak sortu, adibidez Deban egin dena. Guk, arte arloan ezer asko ez dakigularik, baina Biltzarretan jaso ahal izan dugun esperientziak mintzateaz zilegi bazaigu, ezin bestez, uste dugu beharrezkoa dela artisten arteko elkarte edo asosiazino bat sortzea. Honako elkarte hau goi mailakoa izatea komeniko litzake.

Gutxienik behintzat, probintzia mailara iritsi dila. Honela, artistek elkarrekin barne-lotura eta dinamismo gehiago izango lukete, eta, honako agerketak hauek egiteko eta koordinatzeko, arras onuragarri lirake.

HITZALDIAK

Biltzarretako beste zati nagusi bat, hitzaldiak mamitu zuten.

Lehendabizikoa J. San Martinek egin zuen. "Harri aroko artea Euskal Herrian".

San Martin beti bezala gogotsu etorri zen hitzaldia egitera. Egungo franko-kantabro izenez deitzen den kultur eremu guztia aztertu zigan. Banan bana artxibaturik dauzkan diapositiba pila ederra agertu zigan, eta beraien bidez hitzaldia asko aberastu zuen. Aretoa bape bete zen hitzaldi honetan. Jakin ahal izan dugunez, Juanitok berehalaxe argitaratuko omen du beste liburu bat. Kulturari buruz tajutua oraingo hau. Bejondeizula gizon!

Juan Mari Lekuonak egin zizkigun ondorengo beste bi egunetako hitzaldiak. "Erligio sentipenaren joerak Euskal Herrian".

Hitzaldiran ere jendeak ongi erantzun zuen. Lekuona bere aldetik oso ondo prestatu etorri zitzaigun, gaia ongi mamitu zuen. Denbora gehiago izan balu, agian hobeto.

Bere osaba Manuelen hildoari jarraitzen dio Juan Mari ere, gure Herriko mito zahar eta sentipenak arakatzeko. Bistan da J.M. Lekuonak lan sakona egin duela, Euskal Herriko erlijio sentipenak aztertzeko. Zergatik ez ditu argitara ematen?

Guk dakigula, M. Lekuona, Barandiaran, Lacarra, Mañarikua, C. Baroja eta Artetxe bera ere bai (ikus haren Saint Cyran) izan dira, beste batzuen artean, gai hau jorratu dutenak. Ia denak erderaz. Euskeraz, Jon Golkoetxeak Kardaberaz omenaldirako prestatu zuen beste lan bat. J.M. Lekuonarena osagarri sendoa litzake. Falta ditugu euskerazko liburuen artean gai hauek aztertzeko dituztenak.

Arze eta Leteren poema irakurketa.

Hauet buruz ez goazkizue larregi luzatzea. Ze beste toki gehiagotan ere nahiko ezagunak bait dira poema irakurketaok. Duela sei hilabete izan ziren Azpeitian, eta behar bada sarritxo zen berriro lan bera egitea. Jende gutxi heldu zen. Giro egokirik ez zen sortu olerkiaren mezua entzuleengana hurbiltzeko. Egokiago deritzagu, gaurregun olerkiaren mugierari buruz elkarrizketa bat egiteari.

"Musika atzo eta gaur". Jose Luis Ansorena.

Egun eguneko hitzaldia genduen hau. Ansorenak aldez aurrez, hitzaldiaren eskema guztia banatu zigan, magnetofoi eta zintaz ondo horniturik etorri zitzaigun. Baina jendeak oso motel erantzun zuen. Non ziren bailerako eresilariak? Ansorena jaunak Euskal eresilariak banan bana sakundu zituen, eta bereziki Azpeitiko Joanes de Antxieta. Tolosako Kasinoan Euskal musikaren inguruan egin zen elkarrizketa aztertu zigan, hitzaldiaren azkenaldian.

Musikalari klasikoaren eredu Eskudero jarri zuen, eta musika berriaren abangoardian De Pablos. Hok bion tartean leze-zulo handi bat zegoela zioen, agian konponezinezkoa, baina biek Euskal eresilaren altzoan kokatu beharrezkoak. Hitzaldia bizi-bizia izan zen eta elkarrizketarako puntuak barra-barra isuri zituen Ansorenak.

Harrigarri zaigu oraindik ez hitzaldi hartan gertatua! Gure herrian oraintsu sortu den, "Agrupación Musical Azpeitiana" hor dabil musika zaletasuna sortu nahirik; eta gero halako hitzaldi batetara beretariko inor agertu ez! Lotsagarria hitzaldi hartan gertatua!

Santiago Amonen hitzaldia.

Azkenengo hitzaldia Santiago Amonek egin zigan. Madritik propio etorri zitzaigun, arte berriari buruz hitz egitera. Ostera artista multzo ederra bildu zen Amonen hitzaldi ozena, entzuteran. Han ziren Txillida, Zumeta, Balerdi, Isasa, Laboa, Llano e.b. Aretoa jendez lepahezurreraino beterik.

S. Amon Madriten bizi delarik ere, Euskal arteari erabat loturik dago. Egungo Euskal artearen

Biltzarrak



Ona hemen «The New York Time» egunkariak, joan zen Abenduaren 13an Azpeitiko biltzarretaz agertu zuen artikulua zati bat.

egoera eta mugiera azkenengo hariraino ezagutzen dituzte. Adibidez ikus Z. Argiaren 491 zenbakian Edorta Kortadirekin egindako elkarrizketa.

Amonek bere hitzadiaren gaia, filosofo kutsuz hornitu zuen. Bost izen erabili zituen hitzaldiaren ardatz bezala. Giotto, Hegel, Nietzsche, Bergson eta Picasso. Amon hau arte kritikan maisu dugu, hitzaldi guztia buruz egin zuen, batere paper eta apun-terik gabe. Naturaltasun guztiarekin errofak irina jaulkitzen duen bezala, barra-barra botatzen zituen filosofiazko eskemarik korapioltsuenak ere. Bere hitzaldi jorian zehar puntu eta adibide interesgarri asko azaldu ziren. Guztien, artetik bi puntu nagusi aipatuko dugu.

A) "Egungo arteak ere nahiko arrisku badu tradizio hutsean gelditzeko. Ez da aski berrizale izatearekin. Berria gaur, ohitura eta rutina bilakatu da, etorkizuna, lehenaren eta aintzinatearen menpeko hartu dute zenbait artistak. Hots, adibidez, Txillida imitatzen hasi dira eta imitatu ez baino kopiatu egin dute. Hau da egungo artearen arriskurik handiena, berri ustean antzinaturik gelditzea. Picasso bera ere hein batez historia da, alegia etapa aldi bat bete duen artista; forma berrien aintzindari, baina denboraren gupilak estali egin du, beharrezkoa da 1906tik 1907ra agertu zen Picasso berri bat sortzea.

B) Egungo artearen helbururik nagusia, etorkizuna ongi finkatzea da. Arte berriak iraultza esan nahi du. Etorkizuna sekula ez da antzinatoko tradizioaren menpeko. Hegelek zion bezala "etorkizuna taxutzeko beharrezko zaigu dialektika arau ezezkoiaren botereaz baliatzea".

Oharra. Guk hemen soilik ezarri ditugu Amonek iritziok, harek ordea entzuleak ulertzeko erari, esanplu argi asko kontatu zituen. Bestetik Amonek hitzaldia erdaraz egin zuen, euskaraz okerren bat agertuko balitz, gure errua litzake ez beste inorena.

JAIALDIAK

Lehen esan dugun arazoagatik, jaialdi guztien berri eman beharrik ez dugula iruditzen zaigu. Bakar batzuen berri besterik ez dugu emango.

Abenduaren zazpikoa izan zen jaialdirik luzeena. Lau ordu inguru jardun zuten dantzari, kantari, txalapartari eta trikitilariak. Jendetza izugarria bildu zen Izarraitz pelotalekuan. Ezagun zena aspaldion Gipuzkoan ez zela gisa hartako jaialdirik ospatu. Ez jendeak nahi ez zuelako; denok aski ezagutzen ditugun oztipoengatik baizik. Entzulegoa irrika biziz egon zen abestiak entzuten, zenbait kanta mota biziki txalotuz.

Kantu kontuan, jendeak, bate ere gazte jendeak, gero eta gehiago ententitzen duela iruditzen zaigu. Gaur kritika egiteko kapazitatea usu nabari da gazte artean.

Kantari sail ederrak kantatu zuten; Iparraldetik ere Pantxo eta Peillo bikotea, eta Manex Pagola etorri ziren. Batzuk pasaia betetzera etorri ziren; beste batzuk berriz zeukatena oro eskaintzera, eta diferentziokien entzulegoa aisa ohartzera. Zilegi bekit denen artetik Mikel Laboaren enpeinu eta gogotsua aipatzea, beran izan bait zen egiteko hartan gehiena saiatu zena. Tarteka trikitilariak egiten zuten agerraldia Bi bikotek parte hartu zuten.

Urruztilgo "Ahuntza" eta Iturbide bata, eta Sakabi eta Egañazpi besteak. Denon ezagunak laiak. Trikitilariok jaialdi guztiak alaitzen satatzen diran gizon zuhurrak ditugu, batez ere Sakabi eta Egañazpi. Pelotalekuan bildu zen jendeak omenaldi bat bezala eskaini zioen. Bapo txalotzak izan ziren! Sakabi bera oraindik txunditurik dago han egin zituzten.

tzaien arreraz, zenbait bizkarginean ibili nahi zizuten.

"AGERI" ENTZUN-IKUSKARIA

Eresilariak musika experimentalak deitzen diote, J. L. Isasaren konposizio honi. Ageri, Azpeitian jokatuta da lehenbiziko aldiz. Musikaren exprezinoak samurtze arren, Sistiagaren diapositiba batzuk ipini zituzten, onez gainera doinuaren arabera, lau pelotarik imajinazko mugimenduetan egiten zituzten. Jendeak edo entzuleak ez genduen asko ulertu ahal izan, zenbait esaten zuten, "ze, pelotarik gabe atzea eta aurrera, tontuena egiten ari ahaldira". Batzuek pelotariak ikusi zituztenean partidu bat jokatu zutela uste izan zuten. Honelako gertakizunetan azalpentxo bat alde zuzen ematea izango litzake egokiena, eta egin ezinik ez zegoen, Isasa bera hantxe egondu zen denbora guztian.

Ageri, konposizio berri bat zenez gero, kritikari jakintsu asko bildu zen inguruan. Berauek mintza ditezela egiztazko balioa emanaz.

LIBURU ETA DISKA AZOKA

Azpeitiko plaza nagusiak toki apartak ditu liburu azokak egiteko; jendea ugariena ibiltzen den tokietan, arkupe luzeak ditu estalgarritzat.

Liburu azoketan ez du historiari Azpeitiak. Duela zazpi urte egin zen azkenengo adiz, egun erdi batetako bera. Oraingo honetara aurrera ona izan du. Diska asko sadu dela badakigu, liburu artean berriz ipuinak eta bertsoak, jendeak gehien erosi dituenak.

Zenbait argitaldarak bere saltzaileak bidali zituen. Han ikusi genituen azoka monopolizatu nahirik. Liburu saltzaileak baino "traperuen" antza gehiago zeukaten, zeren zenbait ez bait daki liburu bat saltzen, hauzokoa mespretxatu baizik.

Bestetik, ordua iritxi da, bai jaunak! Gehiago ez dugu ametitu behar Euskal liburu azoketan euskaraz ez dakien liburu saltzaileak! Arau hau, oinarritzko baldintza bat bezala ezarri behar luke antolatzaileek. Bestalde, saltzaile askok, ondikotz gehiegik, liburu berriak tutik ez dakite, ez gai, ez metodo, ez eta ideologia aldetik ere. Liburu barkilo bat balitz bezalaxe saltzen dute. Honetan, guk uste dugu, beharrezko zaigula, saltzaileak, kompetentea eta liburu mundua ongi ezagutzen duena izatea, erosle-goa gida eta informa dezan. Gainontzeko "traperu" guztiak errekarat!

BILTZARREN AZKEN EGUNA

Oharra. Amatiño adiskideak bere "Zenbat Gara" sailean emana du egun honen berri. Ikus Z. Argia 513 alea, haatik guk laburtu egingo dugu.

Egungo sentimendu epel eta samur batek besarkatu gintuen Abenduaren 17an; itxuraz ez bide zen Abendua, Ekaina baizik.

Goizeko zortzirik alderako hasi ziren txalaparta joleak herria esnatzen. Herri barrura ahal zen oihartun ozonenak bidali nahirik, txalaparta jotzeko bost toki ankeratu zen. Komuntzo, Takolo, Santutxo, Karpandorrea eta Plaza nagusia. Tartean ezkil-txalaparta jotzen zen. Hauek gelditu orduko, suziriak erasotzen zioten danbaka. Bata beste oso ongi trukitzen ziren, eta pentsaturiko egitaraua ederki bete zuten.

Txalalparta jole berriak ezagutzeko egokiera ere izan genduen. Hara non Unzurrunzaga bere bibote handi eta guzti Komuntzoko hariztian non agertu zitzaigun, txalaparta jo ta jo. Arraioa, gerxeago jakin genduen, Harzabalek diploma emanik zeukazkion egiteko hartarako.

Kalean goran eta behera dantzariak eta Iturengo ttunturroak. Ttunturro hauek zurrutean ere ez dauka makalak. Goizean goizetik hura patarra edan hura! Goizetik isilik eta serio samar ibili ziren; baina arratsalderako oihu eta deihadar ederrik egiten hasi ziren. Beharko zeozer, hala edanez gero.

Ttunturruetariko batek honela esaten zigun: "Baztango euskera guztia, erdaraz zikindua dago, zuek egiten duzue, euskaraz aunitz eta erraz". Hauek dut komeria hau. Gu uda noiz etorriko pozik, Baztango euskara entzuteko; haiek berriz haintzakotzat ez! Hain konplejoak eta errelatiboak dira gauza hauek.

Egun honetan erromeri girorik ez zen faltatu. Trikitilari, txistulari, eta dantzariak jo ta ke, kerarik egiteko kaletan zehar. Meza ondoren Azkoitiko eta Azpeitiko gazte talde batek, Baztango "Mutil dantza" dantza zuten, Azkoitian bada talde bat "Mutil dantza" hau biziki gustatzen zaiona. Itxura genez Urolan zehar zabaldu nahi bide dute nafar-dantza jator hura. Ea zerbait egiten duten.

Dantzarien liraintasunaren tartetik, ttunturro astun zaratatsuak agertzen ziren, gero eta zabalago eta sutuago. Hala zioten egun hartan azpeitiarrek: "gaur hemen, ttunturroak nagusi". Biltzarren bukaeran Euskal-oihartzuna, basa-mutilen oinkada ozonak. TTUNTURROAK NAGUSI!

Honenbestez bukatu ziren Urola Ibarreko Biltzarrek. Jendeak lan asko egin du, herriko sozietateak arretatsu aritu dira lanean. Arrera guztiz herrikoia izan dute Biltzar hauek. Zabalki begiratu esperientzi berri asko eman digu. Artisten lanak elkartzeko ere ez du gutxi balio izandu. 1973 urte honetan, ea beste ibarretan jarraipenik izaten duten. Ojala herri mordoska bat giroko balitz, lan hauek egitera. Hita izanen litzake Urolako mugetan bakarrik gelditzeko.

Biltzarrei buru zenbait jende emandako iritzi laburrak.

JUAN SAN MARTIN: Antxieta etxe honek merezi du ganorazko ekintzetarako prestatzea. Agian arte erakusketarako.

SANTIAGO AMON: Exposizio honetako lan denak kalitate handia dute. Niretzak Iruñekoak baino hobea da.

EDUARDO TXILLIDA: Oraintsu arte, artea gutxi batzuri interesatu zaio. Egun, artea, Herriak eskatzen du. Herria arteaz gose dago.

JON GOIKOETXEA: Kultur ekintza guztiak maite ditut. Asko poztu naiz zuek horrelako lana egin dezuelako.

JESUS MADINABEITIA: Egun hauetan gauza berri asko ikasten ari naiz. Hirigintza asko interesatu zait.

JUAN I. URIA: Lehenago artista ezeptiko batzuek antolatzen zituzten honelako lanak. Orain Herria erne dira ekintza hauek. Hau benetan garrantzizkoa da.

MIKEL LASA: Exposizioa ikustera etorri naiz eta etxeak erakarpen handiagoa sortu dit. Beste egun batetan, propio etorriko naiz Antxieta ikustera.

RAFAEL BALEEDI: Hau hasera bat besterik ez da. Urrengoa askoz hobeto egin behar dugu.

XABIER UNZURRUNZAGA: Etxe honetan zerbait sakona egitea merezi dik. Sarrera honetan zein ederra litzakeen Txillidaren eskultura haundi bat.

JOXANTON ARZE: Biltzar hauek denon aintzindari izan behar diate. Antxieta etxe honetan izugarriak egin zitezke.

GOTZON GARATE: (eskutitzez) Ez dut joaterik izan egun hoietan Azpeitira. Kultur ekintza bikaina eratu duzue. Aurrera!

MITXELENA: (eskutitzez) Badakit ezin hobeki ateratu dituztela Biltzarrek. Aurrera eta nahi duzuen arte.

ANATSAN



Ttunturroak, egun...

bergara

GABON ETA URTEBERRI JAIK

Errege egunakin joan zitzaizkigun aurtengo Gabon eta Urteberrri jaiak. Langilleok sarri begiratzen diogu egutegiari beste jairen bat noiz etorriko ote dan, baiñan urrengoa urruti xamar dela esan bear, bitartean, orain artekoa egingo degu, lan eta lan.

Aurtengo Gabon jaietan izan da bai zer ikusi eta zer entzun.

Gabon arratsaldean ogeitamarebil atara ziran beeko plazatik, grua, anbulantzi eta guzti bere laguntza eskeintzera bitzabalean zear onen premian arkitzen zanari; Bergarako Sokorristak izan ziran onen antolatzaileak.

Udaletxeko gela nagusian illaren 24etik urtarrillaren 1.º «Juventudes Parroquiales» eraturik, ospatu da III garren Pintura erakusketa.

Onen berrri, 514 zenbakian xetasun danekin gure Amatiño azaltzen du.

Gai au dala eta, ezin utz On Simon Arrietaren izena ixilpean. Berari esker ikusten ditugu alako lanak kanpo eta etxeko guztiak arriurik pozez ainbeste jarraitzaile utzi zigulako; neurritz, gizon txikia, baiñan jakinduriz eta biotzez berdin gabekoa. Eskerrik asko, Simon!

Gabon arratsaldean neska-mutil talde ugariak alaitu zituzten bazterrak bere abestiakaz, txistu, kitarra, auspo soñu eta nik ez dakik zenbat zarata ateratzeko tresnakin. Txalogarria benetan «Enseñanza»-ko neska ikasleek eratu zena. Batu zituzten txapan guztiak Erruki Etxerako izan ziran, an dau den gaixoak Gabon alai bat igaro zezaten.

ERIoTZA

Jaunaren besoetan bere bizia utzi zun abenduaren 31an 76 urterekin, Agirre eta Goiztar Erraimundo. G.b.

Bere sendi guztiari, bere seme Perikori bereziki gure samin agurra agertzen diogu.

Udaletxearen aginduz, igandetan, Ortuibar aldetik iriki da bide berria beribilentzati, Bergarako kaleak estuak izanik egoera luzeak egiten zituzten onen erruz.

Egitan, bidea ez da oso atsegina, baiñan zenbat zerbitz da, orain beintzat lasai ibil leiteke igande gabeko txikiteoan ospelak eta kailoak zapaltzeko beldur gabe eta berebillak aixa erraz igarotzen dira bere bidean.

Norbaiten argi izpi bat izan du. Geuk aginduko bagendu, goikoak eta beeko aldekoak toki beretik sartuko genituzke, ia bein erabakitzen dan Bergarako buru-auste au.

MENDIKOI

mutriku

JESUS NAZARENOAREN GANAKO JAIERA

Ona emen Mutrikuar guztoi, sakon eta maitekiro, biotz muñian ikutzen gaituen zenbat. Mutrikuo Jesus Nazarenoaren ganako jaiera. Euskalerriko eliza aundi apaiñetan, deun-irudi bikain eta eder-ederak ditugu, eta irudi eder oietako bat gure erriko Agustindar mojen eliza ederrean gurtzen dugu. Margolari bikainetakoak, ool-langille ospetsuetakoak, gizonik trebeñetakoak esanik dute: Ori irudiaren edertasuna! Zer arpegi itzala dankan! Bizi-bizia dirudi!

Arno-mendiaren barranean jaio diren erriar guziei mamitit dotozkie Nazarenoaren ganako jaiera eta maitasun biza. Naiz emen edo atzerrietako lurralde baztertuñetan bizi, naiz ainbeste urteren bu-

ruan, jaioterriko artu-emanetan zenbat epeldurik arkitu, guziak, Jesus Nazarenoaren izen ospetsua gorralpen eta itzal aundienarekin oroitzen dute. Aundia da benetan, Jesus Nazarenoak gure errian duen biotz berotasuna.

Gure erriar gaixo, osagaitz eta zaar indargabeek Agustindarren eliza dute otoiiz leku. Zenbat ixilpeko eskari bigun Jesusen biotze-raño iristen diranak! Eta, zenbat laguntza eskatze, oiñazean, eriotz-larrian, edo itsas amorratuerekin burruka bizian dabilizanean arrantzaileen alde! Zenbat aldiz «HIMNO ETA SALBEA»-ren ezkil durundaren deari erantzunaz, Nazarenoaren oiñetan bildu geran, otoiiz beroan, laguntza bearrean arkitzen diranen alde abestiaren bitartez eskatuz.

Jaungoiko Santua
Jaungoiko Indartsua
Jaungoiko Ilezkorra
Gaitz guzietatik
Libra gaitzatu Jauna.

Urtarrillaren irugarren igandez ospatzen dugu Jesus Nazarenoaren egun aundia. Ikusgarriak dira Bere omenez egiten diren elizkizun eta bederatiurreenak. Ikusgarria, ainbeste zaar eta gazte, kaletar, baserriar eta batez ere gure arrantzaileak eliza betean ikustea, guztiak otoiiztean, guztiak abeslari.

Kalbarioko mendira
Igo zaitez lenbailen,
Jesus ikus dezazun
Gurutze baten iltzen.

Gure erri maitagarri au beti izandu da euskaldun fededun, kristau erri zintzo eta jatorra. Oraindik, zutik dago gure aurretikoen-gandik jasotako sinisimen sendoa.

ANDONEGI

zumarraga

GAZTERIA BERRIA

Urte aro ontan, biotzez eta itzez, zaletasuna aundiz opa dizkiegu gure lagun eta adiskideei, ZORION BEROAK.

Zorionak opa dituzte ardanegietako nagusiek, salerosleek eta dendariek, diruñete eta bitarteko guztiak beren bezeroen zoriontasuna opa digute.

Urtearen biotzak adieraziko digu mezu eder onen zindotasuna. Une ontan ez da gure asmoa, gizadiaren kondaira negargarriaren zati bat emen agertzea. Une ontan gure asmoa da, gizadiaren egiñetan oiñarritu ta gure erriko gazteria trebearen egintza batzuk argitara ematea.

Gaur egun gure erri-Eliz-barrutian daukagun gazteria guztiak trebea, eta erriko berri emaille mailan egoki derizkiot gazteria oni buruz zenbat agertzea.

Langille purrukatu maillan, gogor leiatzen dira erri-kultura piztu eta jasotzen; gazte diranez errikitu dira, Gabonetan ikusi degu beren biotz aunditasuna.

Abenduak 24. Gurti apainduan jaiotza biza (gazteria taldeak eratu) otean neska-mutil taldeak kanta-kantari, Jesusen Jaiotza erri-tarreñ adierazten, au guztia erriko beartsuen alde. Sortaldeko erregeren etorrera dela ta, aldeko oituraz jantzi, gure gazteak kalez-kale, aurren eskutitzak batzen ill-beltzak-5; Gaueko amarrak inguruan agertu dira gure errian sortaldeko iru erregeak, erri guztia bereziki aurak arrera ona egin diote, ta zer esan gurasoei buruz beren aurren alaitasuna ikusita.

Iru errege auek, eta beren laguntzaileak guztiak dira gure erriko gazteak, Entzun deguez. Erriko beartsuen alde eta antziñako oitu-

ra bat berpizteko, Santa Ageda egunerako asi dira taldeak errotzen, Aurrera Mutillak!!

Gazteria ontan talde batzuek erriko euskaldunen semeak dira, beste batzuek eta ez gutxiñak, lan billa kanpo errietatik etorritako gurasoen semeak dira.

Ikusgarria da benetan berezitasunaren itzalik gabe, nola elkartzen diran. Ta arritzekoa da kanpotar gazte auetan gure gauzak ikasteko nabaitzen degun zaletasuna. Ikusirik gazte auen naitasuna Euskaldunoi dogokigu indar berri au gure esparruan sarzea.

AZKARRAGA

bermeo

BISIGU BAKO GABONAK

Iñotz ez dogu ikusi gure errian bisigu bako gabonik ospatuten. Sinizgatza da, baiñan egia. Olan ba, azkenengo igaro diran senide egunak onetara izan ziran; arraiñ atsegingarri onen utsunea. la urrenguan.

OLENTZERO

Eusko ikastolekako neska-mutikotxuak, eta bai euro ongilleak, Olenzero Begi Gorri ibilli dabie erriko kalerik kale txistu eta auspo soñiñaren laguntzaz. Eresi alaiak benetan. Oso atsegin zan umetxu jaialdia.

ERREGEAK ETA TARASKA

Igazko erara aurten ere, Bermeorako erregeren etorrera itsaso zabaletik izan zan. Eta «Gure Taraska» lebatz ontzi politik ekarri eban eguzki aldeko gizon ospatsu onek. Gainera ontziaren ganbarak gozoz eta jostaillu edo erregeloz bete beteta. Arrantzaleen Anañdi aurrean atara ebien euron kaixe eta zorruak. Zaar eta gazte; baita be erri koxkorak, lagundu eutsuen errege oni, eresiz eta suziriz, kailak ziar, Talako gexotegira eta Atso-aguretxuaren bizi-tokirarte. La datorren urtean ere, emoten deutzazuen, aurtenguelako poza ta une alai, biarrizien dagozien umetxu eta atso-aguretxueri. Egikera onurakorra berari, gure gazteriarena. Aurrera ortik lan orri, mesede egiten beti gure urkoari.

ESPETXEKO BATZUK ETXERA

Agintariak ipiñi eutsoen zigorra ordaindu ondoren, etxeratu dira ainbat espetxetan egon ziran andere eta gizonak. Bezte batzuk, eta asko ondikarren, euron senide eta sorlekutik urrun bizi dira. Noiz arte? Eusko Ama gaxoa... zure itun eta biotz minduan lagun gura neuke izan.

ERIoTZA

Urtarrillaren 7 garrenean, il zan, Zabala tar Anselma, Bermeoko «Cofradia Libre de Pescadores San Pedro» arrantzale Anañdi azken Lendakaria. Lemazain bizkorra eta Abertzale zintzoa be bai. Goian Bego.

URKIDI

oriako alegia

GABON-JAIK

Egun batzuk Alegian igaro ondoren berritara ere Barcelonako txoko honetara bildu gara. Baina egonaldia hortaz zenbat esan gabe gelditzea ez dit bihotzak agintzen. Behin batetan hemen bertan esan nuen ez oso bihotzbera bait naiz.

Eguberri bezpera igande gertatzeak, egun horri zegokion giroa apur bat kendu zion. Alegiatarrak, orde, giroari eusten saiatu zirela esan behar.

Goizean goiz, hotzari ahoa za-

balduz, ikastolako umeek alaitu zuten gure herria. Ez ikastolako umeek bakarrik, neska ta mutil taldeak ere baziren han eta hemen. Dantzari-ablesari talde bat ere, esan zidatenez, Altzo aldean ibili omen zen eguerdi artean. Arratsalde herrira bildu ziren eta bere prestutasuna ederki agertu.

Egunaren bukaeran gazte talde bat ere irten ginen, ogeiren bat. Duela bi urtez gero atara gabe geunden eta zenbat atzerapena sentitu genuen barnean, behin utzitakoari berritara ekiteak dakarrena zihur aski.

Eguberri egunean ikastolako umeek jaialdi bat eskaini zituzten, abesti, antzerki, ritmo tab. Dotorre egin ere.

Urteberriri zegokionez herriko aparkaderoan (barkatu, plazan esan nahi nuen) Herrikoek itxaur ta mandarinak bota zituzten. Plaza guzti azalez beteak ikusi genuen. Norbait, mandarinak behetik gora ala goitik behera bota zituzten galdezka ikusi genuen. Hoiak dira galderak, hoiak, ez da?

«Hiru errege datoz, Orendain aldetik...»

Abesti hau aldatu beharrea gura noski alegiarrok, orain Etxetxuri aldetik esan behar duugu. Alegia itxurez zenbat aldatu da ta erregeak ere bide berriak ikasi dituzte.

Dena dela, aurten ere etorri dira. Errege-zaleak gutizten ari dira badiñan ere. Plazara (oraingoan ondo atara zait), heldu ginean galdera bat ahoan: Erregeen aurretik etorri al dituk horrenbeste automobil? Dena dela urrengo egunean ere han zeuden ta erregeak ekarriak izanen ziran.

Umeek dantza polit batzuk aurkeztu zizkiguten han ere, negargarria hain jende guti ikustea.

Errege egunean giñola euskeraz, hau ere ikastolek antolatua. Ez dakit jenderik bazen ala ez. Bai handi ta bai txiki agertzea eskatu zitzaigun behintzat.

Umeen jaialditara maizago bildu behar genduke. Umeen gauza bat bait da eta umeak beste.

SASKIAK

Eguberrietako saskiak herrian gel-

MARZELINO

zuretzat etxea
ZARAUTZEN

sarrera
50.000 pezetan

ordainketarako erreztasun osoz

- San Pelayo auzoan
- 560.000 pezetan etxe-bizitza
- Erabat bukatuak ditugu

Bear duzun informazio edo argitasuna:

- Asteartean, arratsaldeko 4-6,30 an
- Ostegun goizean 10-13 an
- Eta Donostiako ofizinetan edozein momentutan

CSC CONSTRUCTORA SOCIAL GUIPUZCOANA
AUZO-EGINTZA

Prim Kalean, 14-2 garrenean
Urrutizkiña 426906-429942
DONOSTIAN

Publicidad Autorizada n.º 75

DEPURACION DE AGUAS S. A.

Ur lanetan eta zereginetan berezia edangarri, lantegiko eta igeritako urak gertutzeko zikindutako urak garbitzeko.
Urrut. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01
Gordoniz, 44

BILBAO



lezo

ERREGEAK

Lehenago aski ez bait liren, kabalgata eta guzi, geurekin izan ditugu aurtengo erregeak. Hau izan da haur batzuren urteko pozik haundiena, gehienena agian, beste batzuek Jesus Haurriari edo Olenzerori eskatu bait zizkieten beren kutxiak. Guk ere eske egin dugu, ez dakit nori, baina egin, eta zera, Justizia eta Askatasuna, nahiz eta, agian biak bat izan. Beste zenbait bezala, globo gorriekin ez gera konformatu.

ZAKAE LABEA

Erdal-egunkariaren bidez jakin dugunez, Gipuzkoako Diputazioak Errenteria, Pasaia eta Lezok osaturiko Mankomunidade delakoari zakar eta hondakinen erretzeko labe bat eraikitzeke diru-babesa eskaini dio. Kontuz ibiltzen al gera, bestela herriaren pusketa ederra, eta bat baino gehiago tartean dela, eramango digute, noiz eta sakabanatutako zenbait zikinkeria biltzen eta baztertzen ez ditugun. Batez ere, gure kalegarbitzaileei, abenduko hego haizeak sakabanatutako egur-kizkurak biltzea eskatuko nieke edo bestela, ardura izan behar lukeanari, kale ertzetan kizkur hauen uztea debekatzeko.

IRAKURLEAK

Far eta guzi egiten omen dute batzuek Z. Argian zikintzen ditudan lerro hauek direla-ta. Beste batzuek haserre xamar direla ere badakit. Dena dela, esan dezadan borondate onenarekin eta inolako asmo txarrik gabe eginak direla. Zenbaitek gauza erraza dela esan du, baina berek ere atek zabalik dituztela erantzun nahi diet.

Batez ere odol-emalleekin nago behartua; odol ematea ekintza benegarria iruditzen zait eta benegarriak dira ematen dutenak; hobe genuke denok hori egingo bagenu. Baina ia adibide honen bidez jasotzen duten esan nahi niena (eta konparazioa barkatu): zerrriak, beste gauzaren artean, odolkiak egiteko hazten dira, baina hortarako bere odola behar da. Herriari ere berdin gertatzen zaio: bere odola hizkuntza da, eta hau aintzakotzat hartzen ez dutenek, berez, nahi gabean edo nahi-ta, odolkiak egiten dituzte, zerrikeria galantak, nahiz izen aproposagorik izan. Sistiagaeneko Pello

usurbil

«JESU AURRAREN BIZITZA»

Usurbilek ez du beste aterpe egokirik eta Elizan antzestu zuten Ikastolako haurrek D. Manuel Lekuonaren «Eresidun aur-poematoxa» errege bezperan.

Ezaguna da D. Manuelen poematoxa. Leku askotan azaldu dute ikastolako haurrek.

Egokia benetan Gabonetan haur-kristauei Jesusen berri emateko. Bada hori buruz dotriñako galdera-erantzunak ikastea adina.

Horren ondoren Lizardi zenaren «Xabiartxoren eriotza» izeneko olerkiak bururazitako Iñaki Usobiagaren Ipuia. Hitzaldi mamitsu batek baino gehiago adierazi zien Ipuia honek gurasoei haurren hezieraren berri. Gurasoei sarritan, bizibehararen eta eskeintzen zaien guztia erosi behararen beharrez, ahaztu egiten zaie haurra. Etsai txarra sartu da sukaldean: telebista.

Ume bakoitzak izaera berezia du, premia bereziak ditu, den bezala hartu behar da.

Alderdi on asko ikusi genduen arratsalde hartan.

Herriaren zerbitzuan jarri zen eliza. Gauza hoietarako behartsu den herriari lekua utzi zion.

Beste eskoletan lantzen ez diren alderdi asko lantzen direla Ikastolan ikusi genduen. Euskera dudarik gabe, euskera batua eta jatorra, jatorra bezain batua eta batua bezain jatorra. Kantua, artea, antzerkia... gizarteko zapalketak... Fonetika lege batzuk zeharo hausten zituztela ohartu ginen.

Dena den gauza egokia eta ondo taxutua agertu ziguten Ikastolako errege bezperan. Zorionak.

ANDATZA

zeanuri

URTE BARRIARI ASIERA

Zeanuriko gazte talde batek, aurtengo urte barriari asiera ona emon deusagu, au da, umore onagaz. Orregaitik gelditu gontzezan gauerdian plazan batzeko edo alkartutako danok urtea asteko. Orduan, txistulariegaz biribilketak alaiak egin genduzan Zeanuriko kale gutietatik. Bear bada, baten bat lo egongo zan eta txistu soinuagaz itzartu, baiña uste dot barkatu deuskuela ze aspalditik Zeanuriko gazteok ez dogu euki geure alaitasuna eta poza errian erakusteko erarik.

ERREGE EGUNEKO JAI

Uste dot jendea pozik urten ebalai jai onetatik, ze an artista onak agertu ez, ikusi eben dana borondate onagaz eginda egon zala. Baten bat goratzekotan, goratu bear dogu Mikel, ze danak ikusi eben legez, ondo baiña ondo abestuten dau eta gaitzera gaztea dan ezker, uste dot bide ortan asko egin dezakeela. Ia ba, aurrerantzean be olantxe jarraitzen dogun gazte guttiok eta erriak be olantxe erantzuten dauen.

ARRATIAN BESTE DANTZA TOKI BAT

Igorren beste dantza toki bat zabaldu dabe erregeren egunean eta entzun nebandik gaitzera egoan. Nik ez daukat olango tokiaren aurka ezer, baiña uste dot gazteek olango gauzetan bakarrik ez dabela euki bear jarrita euren ametsa, zoritzarrez gazte askoz gertatzen dan moduan; au da beste ardura edo kezka batzuk euki bear doguzela, erriko gauzen ardura eta abar; eta oraindik geiago esango dot: uste dot olango gauzek arduratuten garanean poz aundiagoa sentitzen dogula geure bizian, beste alango gauzek arduratuten garanean baiña.

SABIN

deba

JAIK

Igaro ditugu Gabon, Eguberri eta Urteberri jaiak. Beti bezala bete dituzte alaitasunez gure karririk abeslari, dantzari eta txistulariek.

Berauek bildu duten diruak helburu jatorra duela ziur gaude. Hau horrela izanik bijoazkie gure txalo eta zorionik gartsuenak.

Bestetik, sendiak elkarteak, lagun arteko agurrek eta besarkadak, gure artean ez direnen orizapenek eta abarrek giro berezia sortzen dute. Egokiera ona bizitzako gorabeherak eta urteen koskak sortzen dituzten munoak berdintzeko jai hauetako mahai inguru.

Ea, bada, benetako Urteberria lortzen dugun ekintzen bitartez. Ez gaitzela egutegiz bakarrik alda.

«Luzaro».

Sona haundia hartzen ari zaiguia jende artean aldizkari hau esan dezakegu. Bertan argitara diren iritzitalka eta kritikek honerako den giroa sortu dutela uste dugu herriaren barruan.

Azken zenbakian badira Udaltxe, Eliza eta Elkarteari buruzko


zirikadak.

Orain urte batzuk ikutu eta aipatu ezinezkoak ziren zenbait erakunde eta zenbait jokabide. Zorionez erauzi samarra dugu tabu edo mamu hori, gazteen aldetik batez ere. Egizale purukatu ditugu. Bejondeizuela.

Baina azter ditzagun zehatz me-

hatz gure arazoak beraz iriztia eman aurretik. Hortan oso kontuzkoak eta arretatsuak izan behar dugu. Denontzat izango da mese-degarri.

IDIAKEZ



irakurleak mintzo

ETA LANGILLEAK ZER?

Ez da oraingo leloa, aspaldikoa baino. Lantegiak irabazi bizian daudenean, autofinantzak aitzakitzat jarririk, ez zaio langilleari behar aibat ordaintzen, zorpean dagoen lantegiari ez omen zaio karga gehiegi erantsi behar.

Baiña, bestaldetik, lantegi hoiak berak zahartzen direnean, rentabilitate gabekotzat jotzen dituztenean, orduan izaten dira komeriak eta istilluak.

Zer da, esate baterako, Pasai Donibaneen bakallu lantegi ezagun batek erabakiko duena? Gaur bertan, egunkarietan irakurri ahal izan dugunez, urren kanpian ez omen dira laneratu, itsasoratuko. Eta langilleak zer? Urtean aurrera dijozenak? Eta besteak?

Itzeginaren jardunak ez dugu ezer konponduko, baiñan ezta aseguro kaskar baten heurriran miseriepean jarraituz ere.


A. U.
(Pasai Donibane)

EZIKETARI BURUZKO LANA

Irakurleentzat leioa idekia daukatzela ikusirik, neronek ere kezka batzuek agertu nairik idazten dituzte.


Iru seme alaben ama nauze. Gazteenak zortzi urte ditu, eta zarrenak amabost. Gurasoei kezka eta ardura eskatzen zaie seme alaben eziketa gogoan arturik. Baiñan kezka ere ez naioa.

Gaurko giroa, gaurko munduaren eskabideak, modaren eraginak, seme alaben nortasuna, gogo eta asmoak gogoan artuaz lan egin bear omen da. Lana nun dagoen badakigu, baiñan lan egiteko ez dugu ezerean erraztasunik aurkitzen. Eziketari buruzko lanak urri eta irakurgaitzak direla esango genduke. Itzaldien bidez zerbait egin dike, baiñan ezer gutxi, orrek jarraipena eskatzen bait du. Zer egin? Galdetu besterik ez dut egiten. Erantzungo duenik balego

María Luisa
(Donostia)TXIMIST-INDAR SAILLA
Departamento ELECTRICIDAD

LANERAKO, BANAKETARAKO TA AGINTZEKO TRESNAGITZA

Aparatos de manobra, distribución y control

OLIO-INDAR SAILLA
Departamento
HIDRAULICOGARBE - LAHMEYER
WUPPERTAL - ALEMANIA'ko
Etxearen banaketa ta
teknika laguntzaBanaketa ta Teknika laguntza:
REX-ROTH GMBH Alemania
RUHRITAL Sp A Olio-indarra. Italia
TUROLLA Sp A. Italia

Goimendi - Automatismo

AUTOMATISMO

Lantegi ta landelak:
Jolasleketa (Herrera)
SAN SEBASTIAN
Urrut. 353840 (7 ari) ta 351800
Telax. 36173 GOIME E
Erakusketa eta denda:
Iparragirre, 15 - SAN SEBASTIAN
Urrut. 428082 ta 428625
Ordezkaritza:
Edujo Sarden, 12. Urrut. 229335-30
VITORIA

Editorial TXERTOA

EL CURA DE MONLEON

3 garren Argitara aldia — PIO BAROJA
EUSKALERRIAREN NOVELA EZAGUNA
Salneurria 160 pezeta

AZKEN LIBURUA

LOS VASCOS Y LA HISTORIA
A TRAVES DE GARIBAYJULIO CARO BAROJA
EUSKALERRIA ETA XVI MENDEATXERTO Argitaldaria. Pl. de las Armerias, 4
DONOSTIA

LIBURU BATZUEN BILLA

Norbaitek honoko liburu hauk etxean balitu edo eskuratzeko modurik balu, adierazi beza ZERUKO ARGIAra.

- «Paroles d'un bizcayen aux liberaux de la Reine». Agustin Chaho. Paris 1834.
- «Philosophie des revelations». Agustin Chaho. Paris 1835.
- «Agonie du Parti Revolutionnaire en France». Agustin Chaho. Paris 1838.
- Agustin Chaho nola Zamakola anaien beste edozein liburu.

FAGOR
edaria
epela dagola?
FAGOR'ek
oztuko
du bereala

Pedro Migel

Urruzuno Salegi

1844 urteko Apirilaren 29an jaio zen P. M. Urruzuno Salegi, Elgoibarko Arrabal kalean. Hil, berriz, Mendaron 1923. Apirilaren 14ean.

Getzetan Nafarroako Lesakan bitzitu zen. Apaiz egin eta gero, berriz, Elgoibarren eta Mendaron, erretore bezala lehenik, eta Agustinetako kapellautzan azkenik.

«Euskalzale», «Euskalerrria», «Ibaizabal», «Euskal-Esnalea», «Jesusen Biotzaren Deya», «Baserritarra» eta «Argia» aldizkarietan idatzi zuen. «Meza Santua zer dan» «Zeruko argiya edo ondo pentsatu» eta «Gramatika parda eta Pilosopia» izeneko liburuen egile dugu. «Urruzunoren Ipuiak, Lenengo idaztia», «Euskalerritik Zerura», «Iru Ziri» eta «Urzale baten ipuiak» deituriko liburuxketan daude bildurik Urruzunoren lanik gehienak.



YULEN

Pedro Miguel Urruzuno

IPIULARI

Xaloa zen Urruzuno eta jende xumearen artean bizitua. Nekazari giroko Euskal Herrian bizitzeko zoria izan zuen. Ez ditu garrantzi handiko gaiak erabiltzen. Herriaren mailan jartzen da. Baserritarak nahi ditu euskaltzaletu. Hoiak euskeraz irakurtzen ohiu ditezten idazten du gehienbat. Beroien hizkeran idazten du zerbait landurik. Euskera errazean, herrikoian eta bizian idazten du. Ijitoen gorabeherak eta gertaerak, jendearen ateraldiak, neskazaharren kontuak, ipui eta bertsoak ditu gairik gogozkoenak.

Baditu bere garaiko giroa aztertzen duten zenbait ipui ere. Baiña denak farregarrikzko eran xelebrikeriaz beterik. Ikus dezagun esate baterako: «IJITOAK» delakoa:

IJITOAK

— I —

Aserretxo zan Pello ijitoa, ta arrazoia're bazuan.
—Nor da Don Burduntzio ori ijitoak burugabeak dirala esateko? Laster erakutsiko diogu nork duan ohea.

— II —

Arrazoia? Arrazoiz betia, mundu guzia arrazoiz betetzeraño.
Nork eta Don Burduntziok bialdu bear berari jueza, etxea errekistazera! Beorra palta bazuan, besteak ere badituzte beorak.
Zazpi testiguren aurrean Mirandan erositako beorra; agiria etxean zeukan; eta berea izan bear zuala, Don Burduntziok esateko... zer, esateko? pentsatzeko ausardia bear zuan. Baña dana dala; Jaungoikoa bere bidez ibilliko da.

Au guzia esaten zuan Pellok, baña arrazoia zuala ere bazirudian. Don Burduntzioren beorak eta Pellorenak bazuten elkarren antza; ama batenak izan zitezken, baña Don Burduntziorenak, buztana oso motxa zuan, eta Pellorenak berriz oso luzea, mardula eta ederra; orretxeri eskerrak.

Don Burduntziok ezagutu zuan bere utsegitea, eta Pellorenkin pakeak egiteko, erosi zion berari beorra berrogei duruan.

Etzion iñork ere ukitu bear egun artan bere beor berriari; berak orraztu bear zuan; trentza eder bat zazpi larrosarekin buztanean ipiñi zion. Izena're lengoari bezela, «Linda» jarri zion.

Bazan lagunak asko begira, Don Burduntzio beorra apaintzen ari zanean. Ederra zan beorra, lengoa baño're ederragoa. Baña, baña... amurriyai! zer da au? Zaldiriaren buztana bere larrosa ta guzi eskuetan gelditu etzitzaión ba? soltaturik? sol... ta... turik.
Jendeak barre egiten zuan edo

ez, eztakit; baña penarik etzuan beñepeñ iñork artu.

— III —

—Baña, Pello: zer egin diozu Don Burduntziori?

—Beorraren buztana saldu diot berrogei duruan. Ikasi dezala oraiñ ijitoak burutsuak diran ala ez.

—Beorra saldu eziozu ba berrogei duruan?

—Ez; beorra beria zuan, eta errestituzioa egiñ nai izan diot.

—Eta zaldi-buztan ark ainbeste balio al zuan?

—Ez, baña...

—Beraz aien errestituzioa'ren egiñ bearko diozu ba?

—Bai, baña ortarako berak egiñ bear dit beste errestituzio bat.

—Zerena?

—Nere pamarena.

—Pama kendu al dizu?

—Bai, jauna.

—Noiz ta nola?

—Jueza etxera bialdu zidanian, ni lapurtzat artzen ninduala.

—Eta pama ori zenbatekin ordaindu diteke ba?

—Ezta diruan egiteko kontua, baña pakeagatik larogeitxo bat durogatik barkatuko nikio; baña bakarrik pakeagatik, bestela ez.

—Askotxo deritzat.

—Nik ba Don Burduntzio ta bere diru guziak baño gelago estimatzen det nere pama.

—Dana dala: uste det jaun ori zurekin aserre izango dala.

—Tenplatuko diogu kitarra.

—Zer esan nai dezu orrekiñ?

—Bigar edo etzi serenata bat eman bear diogula ijituok.

—Nori? Don Burduntziori?

—Burduntzio edo Burduntzi, buztana beorrari al balezaio erantsi...

—Ixo: Orrela al dira orkestako bertsoak?

—Orrela ez, baizikan onela:

— 1 —

Beorraren buztana eskuaz oratu, eta buztana zaio eskuan geratu: ijitoak zer geran orain du probatu, nai badu maiz eta ondo gogoratu.

— 2 —

Berak nai izan zuan beorra orraztu, eta ikusi degu larriturik estu: ijitoen konturik aditu nai eztu, baña ezingo zaio kontu ori aztu.

— 3 —

Orain bagoaz eta agur, Don Burduntzi, emazteari eman bi milla gorantzi, mundu ontan pakean nai badezu bizi, ijitoai beti geldi-geldi utzi.

P. M.

GIZON

Ezagutzen ez gaituen urrutiko-arentzat gizon ona izaten ez da hain zaila. Ondokoentzat ona izaten da zaila. Eta hain zuzen, urrekoarentzat da ona Urruzuno.

Garai hartako denek haxe aitortuko digute: fiña, zintzoa, langilea, emalea, xumea eta jatorra zela. Denen laguna zen, besterentzat zuen zeukan guztia.

Zinez bete zuen bere bizitzan Mendaroko erretoretza hartu zue-nean sarrerako hitzaldian agindu zuena: «Mendarotarrak: ez nator ez gorri eta ez zurien lagun egitera, baizik danona izatera. Ez, ba, ni artu apaiz bezela bakarrik. Artu nazazute danok lagun bezela, bai eleizan zaudetenok eta bai etorri ez diranak ere. Ta benetako lagun bezela».

Horixe aitortzen dute aho batez eta betez ezagutu zuten mojatxoek, apaizek, baserritarrek, sakristauak, harginak, etxeakoandreak eta ijitoek. Honelaxe babestuko zituen ijitoak ere mikelteen aurrean: «Ba-

dauzkate, bai, beren pekatutxoak, baiña zeñek ez? Laga dezaigun pakean ijito jendeari. Ez dutela lanik egiten? Ainbeste eta ainbeste dira egiten ez dutenak!»

Elizgizon egokia zen gainera. Ondo moldatzen zituen mezak eta elizkizunak otoiitez eta kantuz. Sermolari bezala zen motza. «Geldo Miel» deitzen zion jendeak. Baiña berak ere bazekien hori. Garbi asko aitortu zion erritan ari zitzaien etxeakoandreak: «A, Praixka Antoni! Etzazu alperrikan jardun. Zure errietak eta nere sermoiak berdin-berdin: batere».

Bazuen bai halakoxe ezineraman bat marmarrean kontu kontari zebiltzenentzat. Ezagunak dira honako bertso hauk:

Beatak or dabilta beti errezuan, suspiruak eginaz pausuan pausuan; iñork artu nai ez ta ara eta ona, orra estimazioa munduak diona.

Goizero konfesatzera, goizero eleizan, norberanak gorde ta besterenak esan; korriotzat oberik ezin liteke izan, orra gure beatak zer moduz dabiltan.

Lapikuari palta zaionian gatza, gañera aragia, olio ta gantza, arrek bai dadukala beatoren antza: sustantziarik ez du baña bai esperantza!

On eginaz, alaitasuna zabalduz eta euskera irakatsiz bizitza igaro zuen P.M. Urruzunoren gorazarrez Euskaltzaindiak batzarra eta Elgoibarrek festa egingo dute hil honen 28an.

LAPATX

CAJA LABORAL POPULAR

(LANKIDEEN AUZO-AURREZKI ONTZIA)



— DIRU - PRESTAKETA ELKARTEA —

Aurrezki kutxa onen laguntzak: — gizarte-saillean
— diruketa-saillean
— lantegi-zuzendaritza saillean

ZUK AURRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI PREMITEK IRTETZEKO BIDEA SORTUKO DIEGU

Laguntza ezin oheak, etekin eta irabazirik aundienak eta illeroko sari ederrak eskeintzen ditugu

Gure landolak erri auetan idikiak dauzkagu:

Mondragoi
Aretxabaleta
Elorrio
Barakaldo
Ondarroa
Andoain
Plazentzi -Soraluze-
Oñati
Ormaiztegi
Beasain
Gemika

Zumarraga
Elgoibar
Markina
Bergara
Aitsasua
Eibar
Tolosa
Pasai San Pedro
Erranderi
Bilabona
Gazteiz

Bilbo
Legazpia
Irun
Durango
Amorebieta
Azpeitia
Ernani
Zarautz
Sestao
Ordizia
Antiguoa -Donostia-

Ermua
Eskoriaza
Izarra
Ondarrabia
Gaitzaraborda
Lekeitio
Llodio
Recaldeberri
Agurain
San Andres
Azkoitia

Munguia
Yurre
Bermeo
Lasarte
Enenderian
Santurce
Zumaya
Donostia
Iruña
Deba
Anzuola

AITZBITARTE IV-n

Joan den urtean hasitako sail honi jarraipena eta bukaera emateko aurtengo honetan seirenbat lantxo agertu nahi nituzke. Lehen lauak Euskalerriko lau harzulotaz izanen dira: Aitzbitarte, Lezetxiki, Isturitz ta Santimamiñez hain zuzen. Azkenekoak Paleolitos haroan agertzen den arteaz.

Hasi aurretik ba dut egin beharrezko ohar bat. Lanabesei buruz da hain zuzen: Harzulo bakoitzetaz datozen lanetan beti lanabes batzuk agertuko dira, bai suharrizkoak bai hezurrezkoak.

Naiz eta maila bakoitzean era askotako lanabesak agertu ez ditut era guztiak jarriko, jatorrena baino, ahal dedanetan behintzat.

Lau lan hauen ondoren ugarien agertzen diren lanabes guztiez bakarrenbat agertua izanen duzu. Hau erraztasunari eta hinkuntzari begira egin dut, darabilkigun hiztegia ere pixka bat ager dedin.

AITZBITARTE "LANDARBASO"

Landarbaso ienez ezagunagoa da harzulo hau bere izenez baino. Neonek ere izen horrez ezagutu izan. Baina Landarbaso 20 metro beherago doan erreka da. Erreka hau gero Urumeari eransten zaio. Joan denak, hau eta erreka bitartean beste hiru ere badirela badaki, beraren gainean bosgarren bat ere bada. Bereizteko asmoz, Aitzbitarte, IVri deritza. Beste bitartean ere behintzat badira giza aztarnak baina lanik gehiena laugarren honetan egin da.

NON ETA NOLA DEN

Harzulo honen sarrera haundia da benetan, 16 metro bada zabalean eta eskaratza haundi baten ondoren bi larruspe edo galeria zabaltzen dira. Inori oraindik entzun ez badiot ere, diodan, ahoaren antzik baduela, bere kontrako eztaari eta guzti.

Itsas gainetik 220 metro gora dago eta itsasoa handik zazpi kilometrotara. Erreterian dago, Astigarraga bidean.

Gorago edo altura honek badu bere garrantzia. Izan ere izozte garai haietan, egun bezala, zenbat eta gorago orduan eta hotz gehiago egiten zuten. Alde batekin, ordea, gaur aldean orduan askoz hotz, haundiagoa zela, mila metroz goitik, uda eta negu, elurrak urtu gabe irauten zuten.

Garai haietako aztarrentegiri begiratuz gero hau dakusagu, giza-aztarnak 400 metroz beherako harzuloetan bakarrik izaten direla. Zergatik hori? Ihiziak behera zetozelako?, goian hotz gehiegi zelako?...

EGINDAKO LANAK

Zulo honetan egin diren lanen berri ematea, Euskalerriko Lehen-historia azterketen hasierarena egitea litzake. Hona:

1892, M. del Valle, Lersundiko kondeak lehen lanak egin zituen. Honen lanaz ezin gaitzete asko balia. Hiru hilabeteren buruan ba-

serritar baten esku utzi zituen hango lanak.

1896-1901 Donostiako Museo Zuzendaria zen P. M. Soraluze jardun zen eta 1902an G. de Reparaz eta E. Rotondo Nicolau-kin batera jarraitu zuten.

1906an E. Rotondo Nicolau-ren esku gelditu ziren.

Garai hauean Lehen-Historia hasiberria zen eta irudimenak oraindik asko agintzen zuten: aurrean zutena ikusi beharrean nahi zutena ikusten zuten alegia.

Joandakoaz egungo pentsaerakin irizirik ematea zilegi bazaigu, hau genioke: Bere lanak ez zaizkigula ongarri izan eta aztarrentegia ondaturik utzi digutela. E. b. Diotenez Nicolau bera azken partean ez zen harzulo bertara igo ere egiten, goitik zekazkieten hezurrak eta abar behean aztertzen zituen, saskikada bakoitzeko langileari horrenbesteko bat ordainduaz. Gaur egunerako farregarri edo negargarri. Gureak gerora?

1908 E. Harlé etorri zen eta bertako ihizien azterketa egin, paleontologo bait zen. Hiru txandatan agertu zituen harzulo hartako lanak; beranetan ditugu egun zerbi dizaguketen lehenen lanak.

1909an H. Obermaier-ek, frantsesa hau ere, azterketa sakon bat egiteko asmoak eta lan-bideak agertu zituen, baina 1960 arte inork ez zuten lanik egin.

1960an Aranzadi Elkarteak eskatu eta laguntza eskeini zion Jose Migel Barandiarani bertako lanak has zitzan. Paleontologo lana J. Altunak egin du.

Lehen aipatutako lan haietan ia eskaratza guztia hustu zuten, baina baziren ukitu gabeko lauki edo kuadroak eta beraietan egin zuten lan. Azterketa hauek 1960-1964 tartean sei saiotan egin ziren.

Orain arteko lanik onenak azkeneko hauek izan direla esan beharrik ez legoke. Bada, ordea, norbait oraindik, lan hauen berririk ez duenik eta ez da edozein: "Enciclopedia Ilustrada del Pais Vasco (1970)". 1960 arteko lanen berri eman ondoren hau dio "Aitzbitarte III" hitzean: "Es interesantísima

por muchos conceptos prehistóricos, históricos, entomológicos, espeleológicos, etnográficos y merecedora de detenido estudio que debiera planear y llevar a cabo el Grupo Aranzadi".

Hitz batetan Aranzadi Elkarteak 1960 hasitako lanetaz ez du berririk (!). Noizko bibliografiarekin ari zaizkigu gaurko enziopledia egiten? Nora jotzen dute berrien bila? Edota itxuretako bakarrik ote liburu hasieran datozen izenak? Jose Migel Barandiarana adibidez?

SARRIOA ETA BASAKERRA

Biak mendi tontorretan izaten diren ihiziak dira. Hango harkaitz tartetan sortzen den belar izpiekin bizitzen dira. Biak ez dira berdinak elurretan, ordea. Basakerra gogoragoa da, egun behintzat.

Elurteak datozenean mendi tontorretan utzi eta behera datoz eta basoan babesten dira. Sarrioa, ordea, baso itxietara basakerra baino hobetoago moldatzen da. Basakerrak baso argiak eta belardiak maiteago ditu. Baita elurretan bera ere, eta sarritan elurrak zuritzen ez duen tontorretan bizi ohi da, han neguan izan daitekeen berrira janaz. Mendi behean elurra zuri egonagatik tontorretan zuri gabe geldi bait daiteke, zuritze malkarregi den tokietan.

Elurteetan behera etortzen zirela argi dakusagu, beraien hezurrak 200 metroz beherako tokietan agertzen bait dira, eta itsas ertzetik gertu.

Aitzbitarteko lau lur-mallatan sarriorearen ondakinak basakerrarenak baino askoz gehiago dira eta Urtiagako garai bereko beste lantutan alderantziz.


Elkarrengatik urte daude eta egurasti berdina izanen zen bietan. Zergatik ehizatzen zuten bada sarrioa Aitzbitartekoak eta basakerra Urtiagakoak?

Aitzbitarte beherago dagoenez basoa itxiagoa giroa epelxeagoa zitekeen. Bereartan sarrioa gehiago izanen zen Izarraitz eta Lastur mendietako baso argietan baino; zenbat eta gorago eta orduan eta basoak argiago izaten bait dira. Urtiaga, hain zuzen, Izarraitzitik gertuago dago.


Hitz batetan, Urtiagan bizi zenak basaker ugari zuten inguruan, eta sarrio gutti eta sarrio ugari eta basaker gutti Aitzbitartekoak. Ta jakina bakoitza inguruan zuanaren arauera elikatzen zen.

Egurastiaren berri ere jakin dezakegu agertzen diren hezurren ugartasuna aztertuz; zenbat eta sarrio eta basaker gehiago agertu orduan eta egurastia hotzagoa izanen zen. Elurra dela eta behera jotzen bait dute.

Marzelino Aizpurua
Aranzadi Taldean




Aitzbitarte harzuloko oroia. Berartan lauki edo kuadro ttikitan 1960-1968 tartean aztertu ziren metro-kuadroak.



BASAKERRAK



SARRIOA



- 1.-Ukitu malkardun lgeki(lámina de dorso rebajado)
- 2.-Magurio(Nassa)zulatua,zintzilikaia
- 3.-Bi aldeko garranga duen arrankazia
- 4.-Marraizkoa (Raspador)
- 5.-Hezurrezko jostorratza
- 6.-Hosto erako muturra
- 7.-Tiburoi hortza
- 8.-Ahuutz hortz zulatua

—Aitzbitarteko lur-mallak.

—Bi aldeko garranga duten arrankaziren aurretik alde bakarrekoa zutenek sortu zituen gizonek. Zertarako? Batzuk dlotenez makila muturrean jarri ta ehizerako. Besteak, J. M. Barandiaran e.b., arrantzarako egokiak direla diote, amu bezala.

—Solutre ta Aurignak aldien tarteko ondakinekin 14C metodoaz beraien urteak aztertu dira eta hona: 17.950 urte.

—Maluskulaz dagozen ihiziak oso ugari direla esan nahi du, besten ondoan.

HIZTEGIA

Eskaratz: vestibulo
Suharri: silex, pedernal
Basaker: cabra montés
Garranga: dentadura de herramienta
Aurtengo lan hauean darabilgun hiztegia zerbait aldatua dago, bi edo hiru oratarra esaten genituen gauzak batetara esateko asmoz.